


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **BARRENETIK MINTZORA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROPOSAMENA HAUR HEZKUNTZAN**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Ballesteros López de Robles, Unai.

ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu.



**2015-2016**

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan euskara hezkuntza arloan barrenetik mintzora garraiatzeko "Euskal Jolasak" jolas bilduma aurkeztuko da, Gasteizko egungo errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta. Horretarako, euskararen bilakaera historikoa, euskararen eta hizkuntza-ereduen gaur egungo egoera, euskararen normalizazioa, eta hizkuntzen irakaskuntza prozesua aztertu dira. Honako lan hau, Haur Hezkuntzan euskararen erabilera sustatzeko estrategiak martxan jartzeko helburuarekin burutu da, hiru galdera-eragiletan oinarrituz: 1) Zein da euskararen egoera gaur egun Gasteizen?; 2) Zergatik Haur Hezkuntzako ume askok irakasleekin euskaraz eta kideekin gaztelaniaz egiten dute Gasteizen?; 3) Nola euskaldundu litezke patioak? Horrenbestez, hurrengo lerroetan euskara ezagutzatik erabilera eramateko gakoak aurkeztuko dira, betiere jolasaren bitartez.

*Hitz gakoak:* euskararen erabilera, Haur Hezkuntza, hizkuntzen irakaskuntza, jolasa.

## RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado presenta el conjunto de juegos "Euskal Jolasak", cuya función es potenciar la lengua vasca en el ámbito educativo; partiendo desde el conocimiento y teniendo en cuenta la realidad sociolingüística actual de Vitoria-Gasteiz. Para ello, se han examinado la evolución histórica del euskera, la situación actual del euskera y los modelos lingüísticos, la normalización de la lengua vasca y el proceso de enseñanza de lenguas. Este trabajo ha sido realizado con el objetivo de poner en marcha estrategias para potenciar dicha lengua en Educación Infantil, basándose en tres principales cuestiones: 1) ¿Cuál es la situación actual del euskera en Vitoria-Gasteiz?; 2) ¿Cuál es la razón por la que mucha/os niña/os hablan euskera con sus profesora/es y castellano entre ella/os?; 3) ¿Cómo se podría potenciar el euskera en los patios? En conclusión, las siguientes líneas presentan las claves para trasladar el euskera del conocimiento al habla mediante el juego.

*Palabras clave:* uso del euskara, Educación Infantil, enseñanza de lenguas, juego.

## ABSTRACT

This Final Degree Dissertation revolves around an educational proposal called "Euskal Jolasak", the main function of which is to strengthen the use of the Basque language in the educational field, keeping in mind the current sociolinguistic reality of Vitoria-Gasteiz. With this purpose, the historic evolution of the Basque language; the current situation of both the Basque language and the linguistic models; the normalisation of this language; and the language teaching processes, have been examined. This work has been carried out with the purpose of implementing strategies to promote the use of this language in Infant Education, basing mainly on the following three questions: 1) What is the current situation of the Basque language in Vitoria-Gasteiz?; 2) What is the reason why a high amount of children speak Basque with their teachers and Spanish among themselves?; 3) How could the use of this language during the playground time be fostered? To sum up, the following lines present the key features for transporting the Basque from its knowledge to speech through play.

*Keywords:* use of the Basque language, Infant Education, language teaching, game.

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	6
2. JUSTIFIKAZIOA .....	8
3. HELBURUAK .....	10
4. MARKO TEORIKOA.....	11
4.1. Euskararen bilakaera historikoa Gasteizen .....	11
4.2. Euskararen egungo egoera eta hizkuntza ereduak .....	14
4.2.1. EAEn .....	15
4.2.2. Gasteizen eta Araban .....	17
4.3. Euskararen normalizazioa Gasteizen eta bertako hezkuntza-sisteman...	19
4.4. Hizkuntzen irakaskuntza hezkuntza-sisteman .....	21
4.4.1. Hizkuntzen trataerari dagozkion hizkuntza programak .....	21
4.4.2. Kultur eta hizkuntz aniztasuna eta hizkuntzen irakaskuntza prozesua.....	23
5. JOLAS BILDUMA: "Euskal Jolasak" .....	27
5.1. Deskribapena eta justifikazioa.....	27
5.2. Azalpena eta ikuspegi kurrikularra .....	30
5.3. Programazioa .....	31
5.4. Jolas bilduma.....	33

6. BALIZKO APLIKAZIOARI BURUZKO GOGOETAK.....	63
7. BALORAZIO PERTSONALA .....	65
8. ERREFERENTZIAK .....	67
ERANSKINAK.....	

## 1. SARRERA

Eskuartean dugun dokumentua Gasteizko Irakasleen Eskolako Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio; 4. mailako ikasle orok burutu beharreko eginkizuna, alegia. Egitasmoa *Barrenetik mintzora: euskararen erabilera sustatzeko proposamena Haur Hezkuntzan* izendatzea erabaki dut, Euskal Herrian (2008) abiarazitako "bularretik mintzora" kanpainari omenaldi xumea egin nahian. Ekimena "haurrengan (0-8 urte) irakurketa ohiturak sustatzeko helburuarekin" jaio zen, "gurasoak eta hezitzaileak bitartekari" izanik (Galtzagorri Elkarte, 2016). Ildo beretik, euskara ezagutzatik erabilerara eramatean oinarrituko dut eginkizuna. Izan ere, Joxean Artzeren hitzok baliatuta, "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik" (Artze, in Lujanbio, 2010: 47).

Honako egitasmoa, norberaren autonomia, gaitasun eta trebetasunen erakusgarri ez ezik, jendarteari eginiko deboluzio soziala ere bada. Azken batean, unibertsitatean aritu eta publikotasunean sinisten dugunok jasotako laguntza sozio-ekonomikoei esker ona emateko aukera bikaina dugu GrAL-rekin. Hori dela bide, diseinaturiko proiektu hauxe ekarpen xume bezain baliagarria bilaka bedila nahi izango nuke.

Aipatutako lanaren hasierako txostena zenbait sailetan banatzea deliberatu dut, ulergarritasunaren mesedetan. Hasteko, Gradu Amaierako Lanaren justifikazioari helduko diot. Jarraian, egitasmoaren helburuak plazaratuko ditut, lana biltzen duen marko teorikoaz mintzatzearekin batera. Bertan, euskarak Gasteizen eta horrenbestez, Araban izandako bilakaera historikoari erreparatuko diot, segidan euskararen egungo egoerari eta hizkuntza-ereduei oratzeko. Bidenabar, euskararen normalizazioa Gasteizen eta bertako hezkuntza-sisteman aztertuko dut, baita hezkuntza-sistemaren bidezko hizkuntzen irakaskuntza ere.

Marko teorikoa amaitu eta gero, euskara hezkuntza eremuan barrenetik mintzora garraiatzeko jolas bilduma aurkeztuko dut: Euskal Jolasak. Horretarako, proposamena deskribatzen eta justifikatzen hasiko naiz. Bigarrenik, berau azaldu eta ikuspegi kurrikularrarekin harremanetan jarriko da. Jarraian, egitasmoaren programazioari helduko zaio, azkenik jolas bildumaren aurkezpenari oratuz.

Ondoren, balizko aplikazioari buruzko gogoetak plazaratuko ditut, prozesuari buruzko balorazio pertsonalarekin batera. Halaber, egitasmoa gauzatzeko darabilzkidan bibliografia eta internetgrafia iturriak islatuko ditut erreferentzien atalean. Azkenik, Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko erabilitako baliabideak aipatuko ditut eranskinetan.

Gauzak horrela, lanean zehar euskara arloaren orokortasunari mugak jartzea ahalbidetu zidaten hiru galdera eragile plazaratuko ditut datozen lerroetan: 1) Zein da euskararen egoera gaur egun Gasteizen?; 2) Zergatik Haur Hezkuntzako ume askok irakasleekin euskaraz eta kideekin gaztelaniaz egiten dute Gasteizen?; 3) Nola euskaldundu litezke patioak?

Hasierako galdera eragile bezala, jaioterriko euskararen egoeraz ari naiz, euskarak Gasteizen gaur egun ea zer nolako egoera - soziolinguistikoa, bereziki - duen aztertu nahian.

Bigarrenik, Arabako hiriburuan suertatzen den gertakari ohiko bati heltzen diot; bertan, ikasle ugari hezkuntza arloko profesionalekin euskaraz eta ikaskideekin gaztelaniaz egiten baitute. Euskararen honako lotura akademikoa deigarria iruditu zitzaidan eta nire etorkizuneko jarduna Haur Hezkuntzan gauzatu daitekeenez, etapa honetan suertatutako gorabehera linguistikoak ikertzea erabaki nuen. Azkenik, ikasle askorengan eguneroko ogi den kontu linguistiko hau arindu zezakeen konponbide pedagogikoa ematea pentsatu nuen. Honakoa dela tarteko, hezkuntza arloko espazioren bat hartu eta ikertu beharra nuen; ezin, ordea, edozein espazio ikertu.

Hezitzaileen presentzia antzemangarria izanik ere, ikasleen erlazioak naturaltasunez gauzatzeko eremua behar zuen, non ikaskideen erlazioak ikasgelaren eta irakasleen gertuko presentziarik gabe suerta zitezkeen. Horrenbestez, jolastokia hautatu nuen; hirugarren galdera eragilea bideratzeko eremurik egokiena neritzona, alegia.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Euskal Herrian gaztelania eta frantsesarekiko egoera "asimetrikoan" dugu euskara; hau da, bertan badira "ukipen-egoeran dauden hizkuntza ofizialen agerpenean, gaitasunean eta erabileran alde edo desorekak" (Erriondo eta Isasi, 2008, in Aldecoa, 2014: 84). Marko teorikoan geroago aztertuko den moduan, alabaina, 1982an berretsitako "Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarrizko Legeaz geroztik eskolari dagokio ikasleak euskalduntzea, elebitasun funtzionala erdiestea" alegia. Horretarako, dena dela, "ezer baino lehen egun euskara eta gaztelaniaren artean dagoen desoreka (Bergara, 1996, in Aldecoa, 2014: 84) zuzentzea funtsezkotzat jotzen dute adituek". Horren erakusle ditugu, Erriondo eta Isasiren 2008ko ekarpen hauek:

"Asimetria hori, hain zuzen, hizkuntza bakoitzaren agerpena eta erabileraren arteko desberdintasunen sorburua da eta, hortaz, hizkuntzaren normalkuntzaren funtsa da. Hau da, normalkuntza prozeduraren bitartez hizkuntza nagusia eta gutxituaren arteko ahalik eta asimetriarik txikiena izatea lortu nahi da".

Adierazitakoaren haritik, euskarak egun normalizazio prozesuaren premia du adituen aburuz, "euskara, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena [delako] eta, ezagutzaren eta erabileraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzen [zaiolako]" (EHAA, 1982.12.16: 3138); normalizazioaren kontzeptua "10/1982ko Oinarrizko Legearen eskutik datorren adiera" gisa ulertuta, betiere. Horrenbestez, *Barrenetik mintzora: euskararen erabilera sustatzeko proposamena Haur Hezkuntzan* egitasmoak dimentsio akademikoaz gain, dimentsio soziala, kulturala eta politikoa ere baditu.

Izan ere, euskal herritar askoren antzera, euskara ez da nire ama hizkuntza izan; 2 urte soilik nituelarik nirekin era instituzionalizatuan bat egin bazuen ere; eskolaren bidez, alegia. Hortaz, harekin batera jaio ez arren, euskararekin eta euskaraz bizi naizela harro esateko moduan nago; egun komunikatzeko nire lehen hizkuntza da eta. Finean, hiztun elebidunekin ditudan erlazio linguistiko ia guztiak euskaraz dira. Beraz, horra hor euskara eskolan ikasteak duen garrantzia; hizkuntzarekin lehen harremanak bertan garatzen baitituzte ikasle askok Eustateko datuek (Eustat, 2015) egiaztatu moduan (ikus 16. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Araban, adin taldearen arabera (%). 1986-2011).

Esan gabe doa, horrenbestez, hizkuntza honek enetzat garrantzi eskerga duela, baliabide linguistiko ez ezik, altxor soziokultural gisa ere. Beraz, hori dela medio, Haur Hezkuntzako graduan gauzatuko dudana egitasmorik esanguratsuenak ere, euskararekin



lotura izan beharra zuela uste nuen. Horren emaitza zuzena dugu honako Gradu Amaierako Lana: *Barrenetik mintzora: euskararen erabilera sustatzeko proposamena Haur Hezkuntzan*.

Euskarak lanaren norabidea gidatzearen arrazoiak eta aldagaiak hamaika dira: kulturalak, historikoak, linguistikoak, sozialak, politikoak, akademikoak e.a. Milaka urtetik atzera datorkigun euskal identitate eta nortasun kulturalaren ardatzetako bat da, zeresanik ez historiari erreparatzen badiogu. Linguistikoki begira ere, euskara Gasteizen partikularki eta Euskal Herrian orokorrean garatzeko baliabide eta estrategia egokien premia badago (Eustat, 2015). Argi dago, beraz, irakasle-gaion prestakuntza aldetik, berebiziko gaia dugula eskuartean.

### 3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honek orotariko helburuak ditu, bi xede mota ezberdinetan bereizi nituenak hasiera batean: pertsonalak eta akademikoak. Dena dela, helburu pertsonal ugari akademiko bilakatu izan dira lanari ekin ahala, baita alderantziz ere.

Helburu pertsonal gisa, zereginarekin disfrutatzea nuen gogoan, lanak emoziona nintzan, alegia. Euskara soziolinguistikoki hobeto ezagutzeko jakin-min handia nuen, ez bakarrik euskara estandar edo batua, baizik eta euskalkiak eta nola ez, nire jaioterri inguruko euskara. Euskararen historia era sakonagoan ezagutzea nuen beste xedeetako bat, arbasoen eta hizkuntzalarien hitzak, pasarteak eta bizipenen berri irakurriz. Laburbilduz, irakurritakoarekin ikastea eta ikasitakoarekin gozatzea.

Bestalde, alderdi akademikoari oratuz, lan eraginkor eta txukuna egin nahi nuen, etorkizuneko irakasle bezala hobeto prestatzen lagunduko zidana. Lan baliagarria eta balekoa. Lan interesgarria eta, aldi berean, desinteresatua.

Hortaz, aurreko aipamenak aintzat harturik jarraian datozen hauexek hartu ditut egitasmoaren xede nagusitzat:

- Lanarekin ikastea eta ikasitakoarekin gozatzea.
- Euskararen bilakaera eta egungo egoera (soziala, kulturala, politikoa e.a.) aztertzea.
- Hezkuntza-sistema eta euskararen arteko erlazioak analizatzea.
- Gasteizko Haur Hezkuntzako haurrek euskara ez erabiltzera daramatzaten aldagaiak ikertzea.
- Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak martxan jartzea.

## 4. MARKO TEORIKOA

Euskarak Araban eta Gasteizen bereziki duen egungo presentzia ulertzeko, Gasteizen euskarak izan duen bilakaera historikoari helduko diot aurrenik. Horretarako, Koldo Zuazo idazlearen *Arabako Euskara* liburuan oinarrituko naiz nagusiki (Zuazo, 2012). Hurrenik, euskararen eta hizkuntza-ereduen gaur egungo egoera aztertuko da, dela EAEn, dela Araban eta Gasteizen. Jarraian, euskararen normalizazioa Gasteizen eta bertako hezkuntza-sisteman analizatzea deliberatu dut. Azkenik, hizkuntzak hezkuntza-sistemaren baitan irakasteko nondik norakoen berri emango da.

### 4.1. Euskararen bilakaera historikoa Gasteizen

Gaur egun Araban eta Gasteizen suertatzen den euskararen erabilera eta ezagutza maila ulertzeko, bada, Koldo Zuazoren aburuz (2012), aipatu beharreko antzinako iturri garrantzitsua: Donemiliagako monasterioari (Errioxa) zergak ordaintzen zizkioten herri arabarren zerrenda. Izan ere, duela mila urte inguruko habitataren ezagutzarako berebiziko idazkia izan zen, lautadako gune gehienen historia idatziaren jaiotza suposatu zuen eta. Era berean, Iberiar Penintsulako ipar herenaren habitata hobeto ezagutzeko beta eman zuen (Pastor, 2011: 57).

Aipatutako dokumentua 1025ekoa dela esaten den arren, XII. mendearen bigarren erdikoa da gaur egun eskuragarri dagoen dokumentua. Nabarmentzekoa da, bertan, hiriburu arabarra "Gastehiz" izenarekin agertzen dela, euskarak garai hartan eskualdean zuen presentziaren seinale (Zuazo, 2012). Azpimarratzekoa da, era berean, hiru mende geroago ere, hiriak izen euskalduna mantentzen zuela, Ernesto García argitaratutako 1485eko dokumentu batek erakutsi bezala: "La hermita de Gasteays" (García, 2004:107, in Martínez de Madina eta González de Viñaspre, 2012: 137). Izan ere, Martínez de Madina eta González de Viñaspreren idazkiek jaso bezala, euskara ei zegoen Gasteiz inguruetan oso presente "Era el euskera la lengua vehicular de sus habitantes, a tenor de la documentación protocolaria y de su toponimia".

XI- XII. mende bitartean euskarak Gasteizen presentzia bazuela dirudi beraz, baita ondorengo mendeetan ere. Izan ere, bildutako dokumentu zehatzik gabeko hainbat mende igaro ostean, 1528koa dugu Andrea Navagiero italiarrak Araba zeharkatu eta gero utzitako lekukotasun hauxe, Santoyok itzulia: "Bitorian gaztelaniaz hitz egiten da, baina euskara ere ulertzen da eta inguruko herri gehienetan hizkuntza horixe erabiltzen da" (Santoyo 1972, in Zuazo, 2012: 14).

Halaber, ez da jasotako aipamen bakarra, urte batzuk geroago (1572) Giovanni Battista Venturinok Gasteiz inguruetako egoeraren berri zehaztasun handiagoz eman baitzuen: "Bertan [ Gasteizen ] herri xeheak euskaraz hitz egiten du. Oso hizkuntza zaila da ikasteko. Dena dela, aitoren seme-alabek guztiz ondo egiten dute gaztelaniaz" (Santoyo 1972, in Zuazo, 2012: 15).

Alabaina, Zuazoren arabera, gaztelaniaren eragina, "zabalduz eta sakonduz" joan zen ondorengo mendeetan, euskararen gainbeherarekin batera. XVI. mendearen hasieran, jada, gaztelania hirian gailentzen zen eta hurrengo menderako ere, lehia zeuden euskara eta gaztelania Gasteiz inguruko herrietan. Euskararen gainbehera prozesuak hiru gako nagusi izan zituen: 1) Administrazioa; 2) Eskola; 3) Eliza (Zuazo, 2012: 15).

Arabako Batzar Nagusietan (1682), gaztelaniaz ez zekiten ordezkariak ez ezik, ordezkari horiek bidaltzen zituzten eskualdeak ere, zigortzea erabaki zen XVII. mendearen amaieran, González de Zuazo aramarioarraren aurkako bozka bakarra jasoaz (Landazuri aldizkaria, 1994:2, in Zuazo, 2012). XVII. menderako, beraz, euskarak garaiko hiru esparru nagusietako (administrazioa, eskola eta eliza) bat itxia zuen jada: administrazioa. Idazlearen arabera, "Hiriburuko dirudun eskoladun eta agintedun gehienek euskara alde batera utzi eta gaztelania aukeratu zuten. Arabako eremu zabalean, ostera, euskalduna zen herri xehea". Honakoa, Estibaliz Breñas eta Jabi Otsoa de Aldaren zein Kike Fernandez de Pinedoren hainbat lanetan oinarrituta adierazi zuen (Zuazo, 2012: 17).

Alabaina, Martínez de Madinaren (2011) esanetan, Gasteiz inguruak euskaldun izaten jarraitzen zuen. Jarraian datorren esana, Berroztegieta (Araba) herria eta egun Gasteizko auzo den Borinbizkarrako izenen toponimian oinarrituta adierazi zuen:

En ambos casos, los primeros datos del siglo XVI y XVII muestran la forma genuina del topónimo en euskera, lengua de uso común de los habitantes del lugar, derivando ya en el siglo XIX a una especie de híbrido entre las dos lenguas. La peculiaridad de nuestra toponimia es precisamente este contacto entre las dos lenguas del territorio (Martínez de Madina, 2011: 1291).

XVIII. mendean ere, euskarak indarra galtzen ziharduela antzematen da Koldo Zuazoren esanetan. Honakoa adierazteko bi liburuetan oinarritu da Zuazo, besteak beste: Agustín Kardaberatzen (1761) *Eusqueraren berri onac* liburuan izandako elkarrizketa batean eta Justo Garatek idatzitako (1972) *El anillo escolar en la proscripción del euskera* argitalpenean jasotako Pablo Mendibil (1788) dulantziarraren esanetan.

Aipatutako idazkiek eta Zuazok berak adierazi moduan, XVIII. mendean gaztelaniaz mintzatzera behartzen zituzten ume euskaldunak, zigorrak jasotzearen mehatxupean. Hortaz, XVIII. menderako administrazioaren esparrua ez ezik, euskarak eskolaren alorra ere, itxia zuen. Dena dela, Jose Miguel Barandiaranek plazaraturiko *El euskera en Álava a fines del siglo XVIII* liburuan (1926) 1787ko agiri batek erakusten duen moduan, euskarak bizirik zirauen Araba iparraldean eta baita Gasteiz inguruetan ere: "Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria" (Barandiaran, 1926: 465, in Zuazo, 2012: 18-19).

Alabaina, agirian bildu bezala, "euskararen mugak zehaztu" eta "elizako agintariak salatzen" dira, dela alderdi euskaldunak aintzat ez hartzeagatik, dela euskaraz mintzo ziren apaizak inguru horietara (Gasteiz ingurura eta Araba iparraldera) ez bidaltzeagatik. Horrenbestez, antza denez, euskarak hirugarren esparru bat "itxi samar" geratu zitzaion, administrazioa eta eskolarekin batera: eliza (Zuazo, 2012).

Gertakari horien zergatiak argitze aldera, Joaquín José Ortiz de Landazuri egile gasteiztarrak argitaraturiko *Historia civil de la M.N y M.L. Provincia de Álava* liburuaren (1798) aipamen batzuk baliatuko ditut, Koldo Zuazok egin bezala. Bertan, euskarari erreferentzia eginez, Gasteizen hitz egina zela zioen, galtze bidean bazegoen ere. Halaber, euskara galtzearen zergatien inguruan ere, aritu izan zen honako hau esanez:

Dos causas pudieran señalarse que han contribuido a esto principalmente. La primera, el haber entrado por curas párrocos en los pueblos de Álava personas que ignoraban este idioma, o que no hacían aprecio (...). La segunda causa que puede señalarse de la corrupción del bascuence en Álava es el trato indispensable y frecuente con los castellanos confinantes con ella.

Hortaz, gaztelaniaz aritzen ziren parroko eta gaztelaniazko hiztun mugakideekiko trataerak euskarak XVIII. mendean jasan zuen atzerakadaren arrazoietakoz batzuk direla ematen du, Zuazoren eta Landazuriren esanetan oinarrituz. Hori gutxi balitz, bi autoreek berretsi bezala, guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza transmisioa ere, "etenda zegoen" (Zuazo, 2012: 20).

XIX. mendean ere, Gasteizen jazotako euskararen atzerakadak iraun zuela ematen du, Wilhelm von Humboldt hizkuntzalariaren (1801) hitzak baliatuta: "En muchos de sus distritos, principalmente en Vitoria, ya no se habla más vascuence" (Humboldt 1975:92, in Zuazo, 2012: 20).

Urte batzuk geroago (1807), Manuel de Llano merkatariak Gasteiztik igorritako dokumentua baliatuta ere, antzeko egoera linguistikoa bizi ei zela adieraz daiteke. Oyharçabelen aburuz, De Llanok informazio "aski zehatza" ematen du Araban garai hartan bizitako hizkuntza egoeraz, hego eta ipar aldeak bereiziz eta gunen horietan erabilitako hizkuntzak zehaztuz: "Arabako hego aldean - ipar aldean ez bezala - euskara ez da batere erabiltzen". Gasteizi ere aipu egin ziola azpimarratzekoa da, Oyharçabalek bertan euskarak "toki arras murrizta" hartzen zuela jaso zuen eta De Llanoren esanak baliatuz (De Llano, 1807, in Oyharçabal, 2013: 244-245).

Deigarria dirudi, horrenbestez, 1805-1812 bitartean Eugène Coquebert de Montbret-ek zuzendutako euskararen mugak zehazteko lehen ikerketan Gasteiz Arabako eskualde euskaldunen artean agertzea (Oyharçabal, 2013 eta Zuazo, 2012). Oyharçabal, haatik, Gasteiz inguruko zenbait herritan oraindik euskara erabiltzeagatik euskararen eremuan sartu zuelakoan dago (Oyharçabal, 2013: 245). Ildo beretik, De Llanok Gasteiztarrentzat euskara guztiz arrotza ez omen zela zioen Zuazok agertu modura; merkatariaren arabera, gaztelania "hizkuntza nagusia" zen arren (Zuazo, 2012: 20-21).

Louis-Lucien Bonapartek, aitzitik, zehaztasun handiagoz agertu zuen Arabako eremu linguistikoa urte batzuk geroago (Bonaparte, 1863, in Zuazo, 2012: 21). Bertan erakutsi moduan, Araba iparraldeko eskualde gutxitan omen zegoen euskara indartsu (ikus 1. eranskina: euskararen muga Araban 1860-70 hamarkadan).

Arabian euskara kinka larrian baldin bazegoen aurreko mendeetan, 1936-39ko guda zibilak eta Franco hil arteko guda-osteak (1939-75) euskal elea "hizorian jarri zuten Hego Euskal Herrian" Zuazoren esanetan. Garaiko euskararen hizkuntza egoera islatze aldera, Pablo Irizarrek *Los dialectos y las variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico* galdetegia osatu zuen 1973an. Bertan, euskaldun "oso kopuru txikia" zenbatu zuen Zuazoren ustez - 532.000 euskal hiztun-; zeresanik ez Araban, non 1.863 zenbatu zituen. Dena dela, Zuazoren esanetan, "gehiago ere, izango ziren ziurrenera; batez ere, Gasteiz, Agurain eta Araia bezalako industriguneetan bizi zirenak" (Zuazo, 2012: 23) (ikus 2. eranskina: Euskal Herriko - eta inguruetakoko - eta Arabako euskaldunak 1973an).

## **4.2. Euskararen egungo egoera eta hizkuntza ereduak**

XX. mendeko bigarren erdialdean, "euskara erabat galtzea eta desagertzea urte gutxiko kontua zela ematen zuenean", eleak hauspoa jaso zuen ikastolen eta gau eskolen bitartez (Zuazo, 2012: 24). Aipatzekoa da, dena dela, 1960ko hamarkadan jaio ziren

aurreneko ikastolak zein gau-eskolak "ilegalak" zirela. Urteak eman zituzten, beraz, euskal norbanako eta kolektibo askok etxe eta elizetako geletan legez kanpo bilduta, euskara ikaste aldera (Lujanbio, 2010: 43).

Urtetik urtera, dena den, euskararen normalizazioa "ezinbestekoa bilakatu zen" (Lujanbio, 2010: 43). Testuinguru hartan, bada euskara indartzen lagundu zuen gertaera garrantzitsua: 1982ko Euskararen Normalkuntzarako legea (EAE); Nafarroan "Vascuencearen legea" abiarazi zen. Instituzioen aldetik, "elebitasuna ziurtatzen duten ekintzen garapen instituzional honen guztiaren oinarri" gisa definitu zuen Paulí Davilak (Davila, 1993: 159).

EHUko Euskal Filologia sailean aritua den Itziar Idiazabal, lege horren harira, "mugarri eraginkorra" bezala zuzendu zen. Gainera, irakaskuntzari dagokionez, helburu zehatzak agertzen zirela zioen, hala nola: ikasle orok bere ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko eskubidearen aitortza (Idiazabal, 1993: 12). Esan gabe doa, beraz, lege honek euskararentzako hauspoa ekarri zuela, aipatutako autoreek berretsi gisa. Finean, Europako "hizkuntzarik zaharrena dela uste den" euskarak "8000 urte luze dituela" ematen badu ere (Lujanbio, 2010: 38), 30 urte inguru besterik ez dira euskal hezkuntza sisteman ofizial bilakatu zenetik.

#### **4.2.1. EAEn**

Aipatutako legeek, egungo hezkuntza sistema ulertzeko bidea ireki zuten; gaur egun, EAEn, A, B eta D hizkuntza ereduak ditugularik. A ereduari dagokionez, irakasgai oro gaztelaniaz irakasten dira, euskara izan ezik. Euskara, bien bitartean, 4-5 orдутan zehar irakasgai modura ematen da bertan. B ereduak, aldiz, euskara zein gaztelania - irakurketa-idazketa eta matematikak gaztelaniaz irakatsi ohi dira; ikastetxeen arabera, betiere - darabiltza, hauek irakasgai modura lantzen direlarik. B ereduaren baitan, B eredu trinkoa edo indartua ere, badago. Bertan, irasgaien % 60 gutxienez, euskaraz irakasten da, irakurketa-idazketa ere, euskaraz garatzen dela. Azkenik, D eredu dugu, zeinean irakasgai guztiak euskaraz irakasten diren, gaztelania asteen 4-5 orдутan zehar irakasgai modura izanik.

Adierazitako hizkuntza ereduaren artean, D eredu dugu elebitasun errealagoa ekarri duena; Eusko Jaurlaritzako Irakaskuntza Sistema ikertzeko eta Ebaluatzeko Erakundeak (ISEI) argitaraturiko datuen arabera (ISEI, 2015). ISEI-k bost Ebaluazio Diagnostiko (ED) egin ditu 2009. urtetik aurrera; bertan, "zentsuaren arabera Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek - eskola publiko eta

itunpekoetakoek - hartzen dute parte". ED hauen bitartez, ikasleek euskaraz eta gaztelaniaz duten hizkuntza-komunikazioa "modu finkoan" ebaluatzen da, besteak beste.

DBHko ikasleen 2015eko emaitzei helduta, D eredia dugu hizkuntza-eredu gisa elebitasunari dagozkion emaitzarik onenak bildu zituen, hala eskola publikoetan, nola itunpekoetan. Izan ere, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako eta idazmeneko emaitzetan, daturik onenak erdietsi zituen, bai eskola publikoetan, baita itunpekoetan ere; hori gutxi balitz, alde nabariarekin gailendu zen A eta B ereduaren aurrean (ikus 8. eta 9. eranskinak).

Euskaraz ez ezik, D ereduak gaztelaniaz ere, emaitzarik onenak bildu zituen orotara. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako idazmeneko emaitzen arabera, dela eskola publikoetan, dela itunpekoetan gailendu zen. Egia da, haatik, gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia arloan D eredu publikoa nagusitu zela baina Itunpeko D eredia ez; A eta B hizkuntza-ereduengandik oso hurbil geratu baitzen. Dena den, oso emaitza parekoak erdietsi zituzten hizkuntza-ereduok, gainontzeko konpetentzietan jasotako emaitza desorekatuengandik urrun (ikus 10. eta 11. eranskinak).

Halaber, ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia arloan ere, D eredia izan zen eskola publikoetan emaitzarik onenak lortu zituen hizkuntza eredia; B ereduari eta batez ere, A ereduari alde nabaria ateraz. Itunpeko eskolen kasuan, ordea, A hizkuntza eredia gailendu zen, D ereduarengandik oso hurbil. Hizkuntza-komunikaziorako idazmeneko emaitzek ere, ikuspegi bertsua erakutsi zuten, eskola publikoetan D eredia alde handiarekin nagusitu zelarik eta itunpekoetan A hizkuntza-eredua (ikus 12. eta 13. eranskinak).

Hortaz, emaitzak eskuartean, D eredia dugu elebitasun errealagoa ekarri duen hizkuntza eredia, euskaraz zein gaztelaniaz daturik onenak bildu zituelako (ISEI, 2015). Hirueletasunari dagokionez, D hizkuntza-ereduak bildu zituen emaitzarik onenak eskola publikoetan eta, beraz, hirueletasunik errealena hark agertu du. Itunpeko eskoletan, aldiz, A eredia gailendu zen ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako emaitzetan.

Hirueletasunaren harira, Eusko Jaurlaritzaren arabera, "azkenaldian ikastetxeetan ingelesaren presentzia handitzeko apustua egin da, eta gero eta ikastetxe gehiago daude irakaskuntza hiru hizkuntzatan edo gehiagotan ematen dutenak". Eleaniztasuna, beraz, instituzionalki helduleku garrantzitsua izango dela badirudi. Finean, Jaurlaritzako datuek adierazi moduan, "ikastetxeek landutako Proiektu Eleaniztunen kopurua handitu egin da, eta



dagoeneko 315 ikastetxe dira 2015-2016 ikasturtean" (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika Saila, 2016: 8).

Hori gutxi balitz, instituzioak *Heziberri 2020. EAEko hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana* argitaratu zuen 2016an, lurraldeko "hezkuntza-sistema hobetzeko" asmoz. Egitasmoaren ildo estrategikoen artean elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan garatzea dugu. Hortaz, hiru eleko ereduaren aldeko apustu instituzionala agerikoa da, Europa mailan ez bakarrik; EAEn ere bai. Eusko Jaurlaritzaren kronogramaren arabera, plana 2015-2016 ikasturtean ikasgeletan aplikatzen hasi da, Curriculum-materialak egiteko eta ebaluatzeko giden, programazio didaktikoen eta Unitate Didaktikoen ereduaren aplikazioarekin, besteak beste. Hala eta guztiz ere, 2016-2017 ikasturtean hainbat Proiektu Instituzional - Ikastetxeko Curriculum Proiektua, esaterako - abiarazten jarraitzea da Eusko Jaurlaritzaren xedea. Hori gutxi balitz, 2020. urtera arte luzatzea da euskal instituzioaren asmoa. (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika Saila, 2016: 72).

#### **4.2.2. Gasteizen eta Araban**

Gasteizko hizkuntza egoerari erreparatzeko asmoz, Haur Hezkuntzan 2015-2016 ikasturtean Araban jazo diren hizkuntza-eredu ezberdinetako matrikulazioei heltzea funtsezko iruditu zait; gurasoek - hezkuntza-eragileetako bat - euskarari ematen dioten garrantzia adieraz dezakeen parametroetako bat baita.

Eustateko datuei oratuta, 2015-2016 ikasturtean, D eredia da nagusi Arabari dagokionez, Haur Hezkuntzako ikasleen % 62.17ek izen eman baitu bertan. B eredia, berriz, % 34.59k baliatu du, A ereduaren % 3.24ren aldean. Erakundearen arabera, hortaz, Arabako Haur Hezkuntzako ikastetxeetan (2015-2016 ikasturtea) izen eman duten ikasleen % 96.76a hizkuntza eredu elebidunean jardun du, eredu elebakarrean ikasleen % 3.24a soilik aritu delarik (ikus 14. eta 15. eranskinak).

Halaber, ikastetxeen izaera aztertzea ere interesgarria iruditu zait, ikastetxe publiko eta itunpekoen arteko aldea adierazgarria da eta zenbait aldagaitan. Ikastetxe publikoetako hizkuntza-eredurik baliatuena D eredia dugun bitartean (% 84.98), itunpeko ikastetxeetan B eredia gailentzen da (% 69.42); D ereduak, bertan, ikasleen % 25.73k besterik baliatzen ez duen artean. Haatik, bada aldagairik, non, ikastetxe publikoak eta itunpekoak bat datozen: hizkuntza-eredu elebidunetan izen-ematea. Izan ere, Arabako ikastetxe publikoetan ikasleen % 97.76ak hizkuntza-eredu elebidunean diharduen bitartean (2015-2016 ikasturtea), itunpekoetan % 95.15ak dihardu (ikus 14. eta 15. eranskinak).

Arestian azaleratutako datuek erakutsi moduan, Arabako gurasoentzako euskara garrantzitsua dela ondorioztatu daiteke. Halaber, euskarak Araban (eta horrenbestez Gasteizen), hezkuntza-sisteman hiru hamarkada luze daramatzala gogoan izan beharreko datua dugu; bestalde, gurasoentzako aldagai garrantzitsua dela badirudi, matrikulazioek adierazi gisa; hori gutxi balitz, hizkuntza-eredu elebidunak elebakarraren aldean gailentzen jarraitzen dute urtetik urtera; gainera, Gasteizko 2 urtetik gorako biztanleen euskara ezagutza - euskaldunak eta ia-euskaldunak barne - % 48.60koa izan zen 2011n (ikus 5. eranskina: Gasteizko 2 urte eta gehiagoko biztanleriaren euskara ezagutza 1981-2011), datu bilketak hasi zirenetik esanguratsuen (Eustatek eginiko azken neurketa dugu honakoa).

Hortaz, zergatik ez da Gasteizen ia euskararik erabiltzen - Eustateko 2011ko kale neurketak aztertutako elkarrizketen % 6.31n soilik izan zuen euskarak mintzamenetan presentzia - hiztunen ia erdiak (% 48.60) ezagutzen badu? (ikus 7. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiagoko hizkuntza erabilera 1991-2011). Badirudi, beraz, ezagutzak ez duela erabilera bermatzen; euskarari dagokionez, ez behintzat. Gasteizen egun euskarak bizi duen egoera nolabaiteko zehaztasunez analizatzeko, hain zuzen, aipatutako bi parametroak ditugu gakotzat: ezagutza eta erabilera.

Eustateko Gasteizko eta Arabako emaitzei erreparatuz gero, autoreak zuzen zebiltzala ematen du, 1982ko Euskararen Normalkuntzarako legea (EAE) eta Nafarroako Vasconcearen legeen garrantzia nabarmendu zutenean. Izan ere, hala Gasteizen, nola Araban, 1981etik 2011ra arte euskaldunen eta ia-euskaldunen (elebidun hartzaileak) kopuruak gora egin du era esanguratsuan: Arabako euskaldunak (hizkuntza ezagutzari erreparatuz) 9.686 ziren 1981ean eta 2011n, aldiz, 74.383 (ikus 3. eta 4. eranskinak). Gainera, euskaldunak eta ia-euskaldunak diren pertsonak erdaldunak beste izan ziren 2011an aurreneko aldiz, Araban datuak daudenetik - % 49.96 eta % 50.04 hurrenez hurren - (ikus 4. eranskina: Arabako 2 urteko eta gehiagoko biztanleriaren euskara ezagutza).

Gasteizkoak, berriz, 1981ean 6.207 ziren artean, 2011n 52.298 izatera heldu ziren (ikus 5. eta 6. eranskinak) (Eustat, 2013). Nabarmentzekoa da, era berean, euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak gora egin duen neurrian, erdaldunenak behera egin duela urteetan zehar. Horren adierazle dugu, Gasteizen 1986 urtetik 2011ra arte, erdaldunen portzentajea % 77 izatetik % 51ra jaitsi dela (Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua, 2012: 11).

Euskararen erabilera aldetik, haatik, portzentajeek argi erakusten dute ezagutza ez dela sarri erabileran islatzen. Izan ere, Gasteizen % 2.75ekoa zen Eustatek 2011n egindako kale neurketan euskara hutsean mintzo ziren pertsonak, gaztelaniaren % 90.48tik oso urrun.

Gaztelania eta euskara ez diren bestelako hizkuntzen portzentajea ere, euskara berarena baino altuagoa dugu, % 3.21ekoa, hain zuzen (ikus 7. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiagoko hizkuntza erabilera 1991-2011).

Hala ere, badira Gasteizko euskararen etorkizunari itxaropentsu eusteko bestelako datuak ere. 1991-2011 epealdian Gasteizko euskarazko hiztunak hirukoiztu dira 2.029tik 6.589ra arte. Halaber, hiztun elebidunen kopurua ere, era adierazgarrian igo da aipatutako epealdian, 5.308tik 8.546ra, alegia. Hori gutxi balitz, egunerokotasuneko mintzamenetan euskarak presentzia duen hiztunen kopuruari begira, 15.135ekoa genuen 2011n (% 6.31), 20 urte atzerako 7.337koa izanik (% 3.56) (ikus 7. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiagoko hizkuntza erabilera 1991-2011). Hortaz, Gasteizko pertsonen artean, euskarak oraindik ere erabileran presentzia esanguratsurik ez izan arren, bada etorkizun hobea bizi dezakeela pentsatzeko arrazoirik, are gehiago historikoki eta soziolinguistikoki nondik gatozen ikusita.

#### **4.3. Euskararen normalizazioa Gasteizen eta bertako hezkuntza-sisteman**

Euskararen erabilera sustatu eta honen normalizazio prozesuan, hezkuntza-sistemak eta eskolak zeresan handia dute hainbat autorek berretsi gisa. Izan ere, Novo - UNESCO-ko katedratikoa zein filosofian eta hezkuntza zientzietan doktorea - eta Bilbaoren - EHUko irakasle eta ikerlaria - esanetan, "eskola gizarteko eragile garrantzitsuenetarikoa da, funtsezkoa gizarte-sistemaren mantenuan eta transformazioan" (Novo eta Bilbao, 2002, in Aldecoa, 2014: 91). Euskararen normalizazio prozesua honen "erabilera hedatzeko hezkuntza, politika eta kulturaren bitartez ematen den berrantolaketa prozesua da" lau helburu hauek dituen: 1) Hiztun kopurua haztea; 2) Erabileraren maiztasuna handitzea; 3) Erabilera eremu eta funtzio anitzetara hedatzea eta 4) Hizkuntza minorizatuaren presentzia areagotzen lagunduko duten erabilera-arau adostuak indarrean jartzea (Eusko Jaurlaritz, 1996).

Era berean, eskola haurren 2. sozializazio eremua izateaz (familiaren ostekoa) gain, "ikasle orori irakurtzen eta idazten (alfabetizazioa) eta kontatzen irakasten dio" (Bilbao, 2002, in Aldecoa: 91). Eskola, beraz, gizarte-sistemaren eraldaketan ez ezik, hizkuntzen bereganatzean ere, berebizikoa dela ematen du ikerlarien arabera; jendarteko "eragile garrantzitsu" gisa. Hala ere, euskararen normalizazio prozesu bidean badira oraindik emateke dauden aurrera pausoak, Eustateko datuek egiaztatu modura. Horren adierazle dugu Gasteizko ikasle ugari hezitzaileekin euskaraz eta berdinekin gaztelaniaz aritzea. Haur Hezkuntzan ere, halako egoera gertatu ohi da oro har - salbuespenak salbuespen -, hiztunen muga kognitibo eta linguistikoak aintzat hartuta, betiere.

Antzaenez, euskal hezkuntza-sisteman diharduten ikasle ugari euskara eskolako testuinguru formal eta akademikoarekin lotzen dute; testuingurua "hizkuntza eta hiztunen artean gertatzen diren joko-zelaiek osatutako dimentsio" gisa ulertua izanik (Aldecoa, 2014: 31). Badirudi, beraz, ikasle askok euskara ikasgela barruan garatzen diren egoera formalekin lotzen dutela, eta horrenbestez, egoera formal horietako arduradun diren hezitzaileekin. Honakoa izan liteke, ikasleek hezitzaileekin euskaraz aritu baina berdinekin ez erabiltzearen arrazoietako bat, besteak beste.

Hori dela bide, "hezkuntzarako hain garrantzitsutzat jotzen diren irakaskuntza ez-formala eta informala osatzen dituzten" guneean - jolasaldiak, sarrera-irteeretan, jangelan, aisialdian, egonaldietan e.a. - euskararen erabilera sustatzea ezinbestekoa da (Aldecoa, 2014: 76). Finean, eskolaz kanpoko eremua da ikasleen eskola eta gizarte zabalaren arteko zubia; hori dela bide, "arreta berezia eskaini" behar zaiola dio Aldecoak, euskararen gizarteratzea lortze aldera (Aldecoa, 2014: 310).

Eskolaz kanpoko eremuak, beraz, izugarriko garrantzia du euskararen erabilera sustatzeko prozesuan. Ildo beretik, "hainbat adituk erakutsi dute ikasleen eskolaz kanpoko jardueretan esku hartuta euskararen erabilera eragiten dela eta, ondorioz, ikasleek euskara gehiago darabilte" (Altuna, 2003, Baraibar eta Boan, 2007, Berriotxo, 2007, Eizmendi, 2007 eta Esnaola eta Egibar, 2007, in Aldecoa, 2014: 310).

Bestalde, gogoan izan beharreko kontua dugu Gasteizko ikasle gehienentzat euskara bigarren edota hirugarren hizkuntza dela, gaztelania baita hirian gailentzen den ama-hizkuntza; 2011ko Eustateko datuen arabera, gaztelania zen 5 urtetik gorako biztanleen % 90.48ko ama-hizkuntza. Hori gutxi balitz, 1H gisa euskara eta gaztelania ez diren bestelako hizkuntzak areagotzen doaz urtetik urtera, Eustateko datuek (Eustat, 2015) adierazi moduan: 1991ean % 0.49 ziren eta 2011n, berriz % 3.21 (ikus 17. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Gasteizen (%). 1991-2011).

Euskara norbanako gehien 1H hizkuntza ez izateak, hizkuntza bereganatzeko ez ezik, erabilera sustatzeko ere, zailtasun gehigarria esan nahi du; zeresanik ez euskara hizkuntza gutxitua dela aintzat hartzen badugu. Azken batean, gaztelania eta euskara "ukipen-egoera asimetrikoan" bizitzeak, "bata bestea baino proportzio askoz handiagoetan agertzea" dakar. Horrenbestez, "bataren (gaztelaniaren) hizkuntz komunitatea bestearena (euskararena) baino askoz handiagoa da; bata bestearen aldean askoz ere funtzio sozial gehiago betetzen ditu, eta, ondorioz, ikasleek bata ikasteko eta erabiltzeko bestea ikasteko eta erabiltzeko baino erraztasun eta aukera gehiago dute" (Aldecoa, 2014: 25).

Hortaz, hurrek hezkuntza eredu formaletik at euskara ez erabiltzearen inguruko arrazoi posibleen berri eman diezagukete. "Ukipen-egoera asimetrikoa" tarteko, Gasteizen zein Araban euskara 1H (lehen hizkuntza) duten pertsonen kopuruak gora egin du nabarmen azken urteotan. Eustateko probintziako datuei jarraikiz (Eustat, 2015), 1986an 1H elebiduna - euskara eta gaztelania - 5 urtetik gorako biztanleriaren % 4.25ek zuen, 2011ko 7.05ren aldean. Halaber, 5-9 urte bitarteko adin tarteari erreparatuz gero - Eustatek aintzat hartzen duen adin talderik gazteena - datuak are positiboagoak dira euskarari dagokionean: 1986ko % 4.72tik 2011ko % 19.58ra (ikus 16. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Araban, adin taldearen arabera (%). 1986-2011).

Hori gutxi balitz, 1H euskara hutsa duten pertsonen portzentajeek ere, goranzko joera adierazi dute azken urteotan, 1986ko gainbeherazko joeraren aldean. Izan ere, 1986an 5 urtetik gorako pertsonen % 2.81 zuten euskara 1H gisa eta 5-9 urte bitartekoen % 1.51 soilik. Nabarmenezkoa da datu honek euskara gainbeheran zegoela adierazten duela, datuek aintzat hartzen duten biztanleriaren adin tarterik gazteenak gainontzeko biztanleek baino portzentaje baxuagoa erakusten zuelako. Alabaina, 2011ko datuek, Araban euskara gero eta pertsona gehiagoren 1H dela egiaztatzen dute, 5 urtetik gorako biztanleen % 3.94 den bitartean, 5-9 urte bitartekoen % 7.72 delako (ikus 16. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Araban, adin taldearen arabera (%). 1986-2011).

#### **4.4. Hizkuntzen irakaskuntza hezkuntza-sisteman**

Euskara, aurretiaz esan bezala, gero eta arabar gehiagoren 1H dugu, Eustateko datuek adierazi moduan; hiztunen areagotze horretan, hezkuntza-sisteman jazotzen den hizkuntzen irakaskuntzak eragina izan duela badirudi. Hizkuntzen irakaskuntza "hizkuntzaren eskurapen edo ikaskuntza-prozesuaz aritzen den arlo zabala" dugu. Arloari dagokionez, "egoera elebidunetan" zein eleaniztunetan, "hizkuntza bakoitzak irakaskuntzan duen lekua erabakigarria da, bai hiztunen ibilbide akademikoan, bai gizartearen normalizazioan (Lujanbio, 2010: 65).

##### **4.4.1. Hizkuntzen trataerari dagozkion hizkuntza programak**

Besalú eta Vilaren (2007) *La buena educación: Libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI* liburuko adierazpenetan oinarrituta, hiru dira hizkuntzen trataeraren alorrean, hezkuntza-sisteman garatutako programa motak: azpiratze programa, murgiltze programa eta mantentze programa.

Azpiratze programen jatorrizko helburua "hizkuntza gutxituko haurrek euren hizkuntza eta kultura baztertea" zen, tokian tokiko hizkuntza prestigiodun eta sozialki indartsuak zirenengatik ordezkatzeko. Bertan, hizkuntza gutxiko haurrek 2Hn garatzen dute irakaskuntza prozesua ("gehiengoaren hizkuntzan"), asimilazioan oinarritutako elebitasun kentzailea bultzatuz. Gaur egun, ordea, gainbeheran daude, Eustateko datuek egiaztatu bezala (Eustat, 2015).

Murgiltze programen helburua, berriz, "haurra bi hizkuntzatan - jatorrizkoa eta eskolakoa - alfabetatzea eta trebatzea" da, bi eleetan gaitasun bera erdieste aldera. Kanadan jatorria duen programa honetan elebitasun gehitzailea bilatzen zen. Alabaina, hizkuntza nagusiak hizkuntza gutxituaren aldean gailentzeko arrisku handia dago, ematen zaion trataeraren arabera. Hizkuntza programa honetan bi murgiltze mota ditugu: murgiltze goiztiarra eta murgiltze atzeratua edo berantiarra.

Murgiltze goiztiarrean haurrak eskolatu bezain fite hasten dira 2Hn; murgiltzea erabatekoa edota erdizkakoa izan daitekeelarik. Erabateko murgiltze goiztiarra, "denbora guztian eta gai guztietarako 2H erabiltzea da". Erdizkako murgiltze goiztiarrak, aldiz, garatutako gaiak eta horiek lantzeko baliatutako denbora "bi hizkuntzen artean banatzen ditu". Murgiltze atzeratua edo berantiarrean, azkenik, "eskolatzearen hasieran haurren ama-hizkuntza baliatuko da, 2H pixkanaka barneratuz". Programa honetan, "murgiltze osoa beranduago garatuko da": Lehen Hezkuntzan (murgiltze atzeratua) edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (murgiltze berantiarra).

Mantentze programen helburua, azkenik, "hizkuntza gutxitua duten haurrek benetako elebitasuna lortzea" da xede. Honako ereduetan "irakaskuntza haurren ama-hizkuntzan egiten da, gizarteko hizkuntza nagusia ere sartuz". Gainera, eskolan hizkuntza biak garatzen eta erabiltzen dira "elebitasun maila ona lortuz" (Besalú eta Vila, 2007).

Arestian plazaratu moduan, EAEko hezkuntza-sistemak 3 hizkuntza eredu ditu egun: A, B eta D. Aitzitik, haurren 1H-en gaineko aniztasuna dela bide, eragin ezberdina izango du eredu eta programotako bakoitzak ikasleen gaitasun linguistikoetan. A ereduan diharduten haur gaztelaniadunek, jendartean indartsu den hizkuntza baliatuko dute programa elebakarrean. Haur euskaldunentzat, ordea, azpiratze programa bilakatuko da; hau da, sozialki hizkuntza botereduna eta prestigioduna gailenduko da - gaztelania - ikasleen 1H gutxituen aldean.

Halaber, B hizkuntza-eredua erdizkako murgiltze programa bihurtuko da 1H gaztelania duten haurrentzat. Izan ere, eskola orduen ehuneko adierazgarria euskaraz jorratu arren, gaztelaniaz ere, eskola saioen ordu kopuru esanguratsua garatuko dute - ikastetxearen arabera, aldakorra -. Haur euskaldunentzat, aldiz, erdizkako mantentze programa izango da, eskola orduak euskaraz eta gaztelaniaz aurrera eramaten baitira bertan.

Bestalde, D eredua erabateko murgiltze goiztiarra bilakatuko da gaztelania ama-hizkuntza duten haurrentzat; ikasle hauek ikastetxeetan sartu orduko, 2H batean - euskara - emango baitituzte eskola orduak, ia bere osotasunean. Haur euskaldunek, haatik, etxean ikasitako hizkuntza baliatuko dute eskolan, berau sozialki gutxitua izan arren. Hortaz, mantentze programa bilakatuko da haurrentzat.

Nafarroari dagokionez, hizkuntza eta hezkuntza egoera ezberdina da EAEkoarekiko. Bertan, Vasconcearen Legearen ondorioz, hiru erabilera eremutan dago banatua lurraldea: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Euskarak, eremu euskalduneari soilik hartzen du koofizial nortasuna. Hizkuntza-ereduen haritik, EAEko A, B eta D ereduez gain, Nafarroan ere, bada G hizkuntza eredua, zeinean irakasgai guztiak - atzerriko hizkuntza izan ezik - gaztelania hutsean ematen diren, euskarak inolako presentziarik izan gabe.

Ipar Euskal Herriko egoera, bien bitartean, are kezagarriagoa da euskararen osasun linguistikoa bermatze aldera, euskara ez baita bertan ofizial. Azken batean, Frantziar Estatuan ofizial den hizkuntza bakarra frantsesa da. Bertako hezkuntza-sistema publikoan, beraz, ez dago euskara ikasterik eta itunpekoak diren ikastoletara - Sehaska - jotzea da euskaraz ikasteko abagune bakarra.

#### **4.4.2. Kultur eta hizkuntz aniztasuna eta hizkuntzen irakaskuntza prozesua**

Honako guztia hizpide, bada EAEko hezkuntza-sisteman egun aintzat hartu beharreko errealitatea: kultur eta hizkuntz aniztasuna. Xabier Mujika hezitzaile eta idazlearen esanetan, ikasleen kultur eta hizkuntz aniztasunari egokitasunez erantzuteko "2H-en irakaskuntza bermatzeko didaktika berritua berrasmatu beharra dugu". Halaber, "zenbait kasutan eskolako elea haurren 3. edota 4. hizkuntza izango dela" berresten du Mujikak. Honen haritik, kultur arteko hezkuntza erreala erdiesteko, berau "etorri berriak diren ikasleentara soilik ezin dela mugatu" dio hezitzaileak; "ezta jatorrizko kulturen unean-uneko ikuskizun exotikoetara ere", aurreiritzi eta "topikoetara" jotzea ekar baitezake (Mujika, 2007, in Besalú eta Vila, 2007: 14).

Besalú eta Vilaren ustez, egoera horren aurrean, "jatorrizko hizkuntz aniztasuna dagoen geletan, hasierako hizkuntza-egoera asimetrikotik elkarrizketetan oinarritako egoeretara igarotzea ezinbestekoa da". Honakoa, asanbladetan, txokoetan, tailerretan zein atsedendietan "bultzatzeko premia" aldarrikatzen dute; autore hauen aburuz, egoera komunikatiboetan, hain zuzen ere, baliatzen dituzte "hizkuntza zein hizkuntzaz kanpoko (intonazioa, erritmoa, tonua e.a) baliabideak". Era berean, haurrei hitza ematea eta "irakasleek ikasleekin batera esanahiak eraikitzearen alde azaltzen dira (Besalú eta Vila, 2007: 90-121).

Halaber, elkarrizketa ez ezik, elkarlana ere, funtsezkotzat hartzen dute Besalú eta Vilak. Autoreek, kultur eta hizkuntz aniztasuna "berdinen arteko elkarlanerako aukera" gisa dakusate, "irakaslea ez baita ikasketetan lagundu dezakeen bakarra". Idazleen ustez, "ikasleetako batek besteak baino gehiago dakienean honakoa lagun dezake", "ikaskide bitartekari" bilakatuz (Besalú eta Vila, 2007: 116-117). Hortaz, hizkuntzen irakaskuntzan hezitzaileak ez bakarrik; ezpada berdinek ere, zeresan handia izan dezakete.

Era berean, haurren jatorrizko hizkuntzak ikasgelan barneratzea oso lagungarri suerta daiteke, ikasleak integratuago senti daitezten. Horren aldekoa dugu Xabier Mujika hezitzailea, zeinek "heterogeneotasuna lortzeko didaktika" aldarrikatzen duen. Mujikak "bizikidetzaren positiboa garatzeko kultur arteko gaitasunen alde egiteaz" mintzo da, "norbanako eleanitzak hezteko" (Mujika, 2007, in Besalú eta Vila, 2007: 13). Horretarako, unean-uneko ekintzak, eskulanak edota horma-irudiak garatu daitezke, ikasleen eta euren jatorrizko hizkuntzekiko harrera eraginkorragoa bilaka dadin: zenbakiak ikasteko hiztegi eleanitza, horren erakusgarri (ikus 18. eranskina: Zenbakiak ikasteko hiztegi eleanitza).

Bestalde, hizkuntzen irakaskuntzaren gaiari oratu, honakoa da Lujanbiok, hizkuntzen irakaskuntzaren zereginaren gainean diona: "Hizkuntzaren irakaskuntzaren zeregina izango da ikasleak bete nahi dituen helburuak lortzeko (konbentzitu, azaldu, argudiatu...) eta testuinguru komunikatibora egokitzeko estrategiak garatzen laguntzea" (Lujanbio, 2010: 67). Ildo beretik, Hezkuntzaren Didaktikan EHUko irakasle den Paloma Rodríguezek, hizkuntzak irakasteko hainbat estrategia eskaini zituen (2013) gaiari adituak diren zenbait autoretan oinarrituta (María Carmen Díez, besteak beste): 1) Orientazio estrategiak; 2) Errazteko edo laguntzeko estrategiak; 3) Informazio estrategiak; 4) Sostengu estrategiak eta 5) Bukaera estrategiak.

Orientazio estrategiak baliatuta, "solas gaia proposatu ondoren iruzkin zuzenak eta galdera-eragileak" bultzatu daitezke, "ikasleei gogoeta" eragiteko. Errazteko edo laguntzeko



estrategien erabilerarekin, "gaiak sakonago aztertze" abagunea eskainiko zaie umeei. Gauzak horrela, "informazioa osatzen, ardatzen eta egiaztatzen" lagunduko ditugu haurrak. Informazio estrategiek "hezitzaileek gaiari buruzko eredu edota informazio berria ematea" ahalbidetuko dute, haurrak testuinguruan egokitasunez koka daitezzen. Sostengu estrategien bitartez, "irakasleak ikasleak babestu eta goraiapatuko ditu" egoki burututako ekintzen zein haien ekarpenen aurrean. Honakoak, keinuen bidez ere, gauzatu litezke, ulerkortasunaren alde, betiere. Bukaera strategiak, azkenik, "ariketak bukatze" daudenean abisatzean" dautza, ekintzen zein denboraren nozioa bereganatzen laguntzeko.

Komunikazioaren aldeko estrategien eta metodologiaren erabilerak, beraz, hizkuntzen ikaskuntza prozesua erraztu dezake. Gainera, hizkuntzaren garapenean aditua den Cummins irakasleak honakoa adierazi zuen berak plazaratutako *Elkarmenpekotasunaren teoriaren* (1979) harira: "komunikaziorako gaitasuna bat bera da hizkuntza guztietarako (arrazoitzea, buruketak, laburpenak egitea, ideiak lotzea, etab.)". Horrenbestez, edozein hizkuntzatan hitz egiteko, idazteko nahiz irakurtzeko egin beharreko adimen-operazioak egiteko komunikaziorako gaitasun bera dugu. Hortaz, "umetan hizkuntza batean landutako sakoneko gaitasuna bigarren hizkuntzarako ere baliagarria izango da", hizkuntzen arteko transferentzia kognitiboa jazoko delako (Cummins, 1979, in Falagan, 2015: 7).

Aitzitik, Cumminsek zera iradoki zuen 1989an: "Elebitasun gehigarriak etekinak emateko bostetik zazpita bitarteko hezkuntza urte behar dira irakas-hizkuntza 2H delarik" (ISEI, 2012: 10). Ildo beretik, Itziar Laka hizkuntzalariak "hizkuntzaren jabeak aro bat baduela" dio: haurtzaroa. Gainera, ikerlariaren aburuz, "aro hori pasatutakoan gaitasun hori herdoildu egiten da eta hortik aurrera ikasten ditugun hizkuntza guztiak beste era batean ikasten ditugu" (Laka, 2005, in Agirre, 2005: 14).

Izan ere, "haurrak jaiotzen dira giza hizkuntzetan soinuak izan daitezkeen fonema guztiak bereizteko gaitasunarekin". Lehenengo 4-5 hilabeteetatik aurrera, gainera, "umeak egiturekin hasten dira. Helduoi entzuten diguten hitz-jario jarrai horretan silabak non diren sumatzen hasten dira, eta horretarako estatistika erabiltzen dute". Sei hilabete ingururekin "hasten dira, fonologia guztiaz eta silabez jabetu direnean, "ma", "ba", "pa" zaratak egiten. Ondoren, nolabait espezializatzen hasten dira, eta beren hizkuntzari dagozkion soinu bereziak egiten dituzte. Hiru urte betetzen ditueneko, hizkuntza ikasi du guk orain ikasi ezingo genukeen bezala" (Laka, 2005, in Agirre, 2005: 13).

Badirudi, hortaz, hurrek helduok baino erraztasun handiagoz ikasten dituztela hizkuntzak. Izan ere, "haur txikien garuna mikroskopioan begiratuta, ez da helduena bezalakoa eta heldu ahala, neurona asko desagertu egiten dira". Era berean, "erabiltzen ez diren edo inputaren aldetik oso biziak ez diren neurona-konexioak besterik gabe eten egiten dira, desagertu. Horregatik, ume txikien garunek askozaz ere neurona-konexio gehiago dituzte" (Laka, 2005, in Agirre, 2005: 14).

Lakak gizakion mielinizazio prozesuari egozten dio hurrek hizkuntzak ikasteko duten trebezia. Ikerlariak, helduon mielinizazio prozesua horrela azaltzen du: "Neuronen arteko konexio bat oso sendoa denean – asko erabiltzen delako –, mielinak (garunean dugun substantzia koipetsua) konexio hori isolatu egiten du. Horrek barruan doan konexioa askozaz azkarragoa egiten du, baina beste aldea ere badu: neurona horiek beste neurona batzuekin konexio berriak sortzea galarazten du. Horregatik kostatzen zaigu helduoi gauza berriak ikastea. Haur txikiek, ordea, erraz egin ditzakete konexio berriak".

Hori dela eta, Lakaren ustetan, "hizkuntzak noiz ikasten diren da garrantzitsuena" (Laka, 2005, in Agirre, 2005: 14); arestian adierazi moduan, haurtzaroa baita hizkuntzak ikasteko etaparik egokiena.

## 5. JOLAS BILDUMA: "Euskal Jolasak"

### 5.1. Deskribapena eta justifikazioa

Haurtzaroa hizkuntzak ikasteko etaparik egokiena izanik, Haur Hezkuntza hizkuntzak ikasten hasteko sasoi egokia dugu. Aurretiaz adierazi bezala, urtetik urtera, gero eta gehiago dira Araban eta Gasteizen euskaraz mintzatzeko dakiten norbanakoak. Alabaina, Gasteizen ez da euskararen ezagutza erabileran islatzen, ez helduengan, ezta haurrengan ere. Haurren kasuan, aipatutako errealitatea agerikoa da hiriko ikastetxeetako atsedenaldira garaietan, non, oro har, ez den euskararik erabiltzen HHko umeen artean.

Honakoa tarteko, geroago azalduko dudako jolas bildumak - "Euskal Jolasak" - euskararen erabilera sustatzeko eginkizuna izango du, patioak ez ezik, ikasgelak ere euskalduntzen saiatzeko. Dena dela, atsedenaldira garaiko jazoerek hartuko dute garrantzirik esanguratsuenak, patioa baita euskara baliatzeko hezkuntza-sistemako eremurik zaurgarriena. Izan ere, jarraian aztertuko den bezala, helduen bideratze lanik ezean, jendarteko hizkuntza nagusia gailentzeko joera dago bertan: gaztelania.

Patioak euskalduntzeko jardunari erreparatu aurretik, bertan parte hartzen duten hezkuntza-eragileak nortzuk diren jakitea funtsezkoa da. Bideanabar, "hezkuntza-komunitatea osatzen duten kideak" patioetan dihardutenak ditugu: 1) Ikasleak; 2) Irakasleak; 3) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (AZL) eta 4) Gurasoak (Aldecoa, 2014: 200). Alabaina, eskola-ordutegiko patio-orduetan ikasleak, irakasleak eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (zenbaitetan, ez beti) diraute soilik. Izan ere, gurasoek eskola-ordutegitik kanpo baliatu ohi dute patioa. Hortaz, patioetan suertatutako elkarrekintzarik gehientsuenak ikasleak eta irakasleen bitartez jazo arren, AZL-en (garbitzaileena, esaterako) edota gurasoen (haurrak jaso eta eramateko orduan zein eskolaz kanpoko orduetan) presentzia ere, agerikoa da.

Behin hezkuntza-eragileak definituta, arazoa gogora ekartzeari egoki izan deritzot. Horretarako, Iñaki Artolaren Eusko Jaurlaritzako *Eskola hiztun bila* egitasmoa esane heldu diet: "ikastetxeetan ikusten da ikasleak euskara ikasi arren, hizkuntza-gaitasuna lortu arren alegia, euskararen erabilera – ahozko mintz-jarduna - ez dela proportzio berdinean bermatzen. Esan nahi da, gure artean euskara jakiteak ez duela ziurtatzen egoera formaletatik kanpo, behintzat, euskara erabiliko dugunik" (Artola, 1991, in Aldecoa: 207).

Aipatutakoaren ildotik, ukaezina da zenbait haur gasteiztarren euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza bereganatze ordu kopuruan desoreka ikaragarria dagoela; eskola euskaraz mintzatu eta elea entzuteko askoren esparru bakarra izanik. Beraz, ez da harrizkoa euskara 2H duten haur ugari egoera ez-formaletan berau baliatzeko joerarik ez izatea. Halaber, irakasleen eta ikasleen hasierako komunikazio kanala, euskara dugu. Hortaz, ikasleek jakin, badakite euren nahiak asetzeko hezitzaileei euskaraz zuzendu behar zaizkiela, eskakizunak betetzeko baldintza gisa. Berdinekin, ordea, komunikazio kanalak ez dakar baldintzarik nahiak betetze aldera, eta, beraz, euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteak ez du eraginik izango lortu nahi duten hura eskuratzeko. Gauzak horrela, erosoan dauden elea baliatu ohi dute, nagusiki ama-hizkuntza edo sozializatzeko hizkuntza, hots, gaztelania.

Ildo horri jarraikiz, haurrek euskaraz duten ikuspegia aldatzean egon liteke hasierako gakoa. Oro har, umeez ikastolarekin, beharrezkin edota derrigorrezkin lotzen dute euskal elea. Beraz, hezkuntza-eragile eta hezitzaileen aldetik bereziki, kutsu negatibo hori arintzean dago erronka, aisialdiarekin eta ongi pasatzearekin lotzeko. Horretarako, haatik, euskara erreminta egokiak eskaintzea ezinbestekoa dela ematen du, haur askok ez baitute euskaraz aritzeko behar adina baliabide linguistiko. Non eta jolasean, premiazkoa da haurrak tresneri linguistikoz hornitzea Maite Garaigordobil (Ebaluazio psikologikoan katedraduna eta jolasaren ikertzailea) aburuz: "jolasak pentsamendua garatzeko gaitasunak eta haurren sormena estimulatzeaz gain, ikaskuntza zonalde potentzialak sortzen dituelako" (Garaigordobil, 2005, in Del Toro 2012: 4).

Garaigordobil katedraduna, halere, ez da jolasari garrantzia ematen bakarra. Horren erakusle dugu Vygotskyk (1933), Piagetek (1945), Garveyk (1977), Brunerrek (1986) eta Garaigordobilek berak (1990) "jolasa berdinen arteko ikaskuntza eta komunikazioa bultzatzen duen hezkuntza erreminta" dela. Era berean, "garapen kognitiboan, afektiboan, sozialean, komunikatiboan eta psikomotorrean onurak dituela" diote. Hori gutxi balitz, "umearen garapenean duen garrantziagatik egunerokotasunean baliatzea sustatzen dute" eta "hezkuntza formalean ez ezik, ez-formalean ere, erabiltzearen alde" azaltzen dira (Del Toro, 2012: 1).

Adierazitakoa hizpide, jolasak zein jolasteko baliabideak euskaraz eskaintzea atsedenaldira garaiak euskalduntzeko urrats garrantzitsua izan daiteke adituen berrespenetan oinarrituz. Horretarako, dena den, hezitzaileen inplikazioa eta elkarrekintza funtsezkoa dirudi. Izan ere, zenbait jolas berri bideratzeko arduradunen premia beharrezkoa izan ohi dute haur gazteek jolas berrien hasieran, zeresanik ez 2H-n edota 3H-n burututako jolas berrietan.

Gasteiz inguruan, dena den, badira euskara sustatzeko ekintzak martxan jarri dituzten hainbat ikastetxe: Armentia Ikastola, besteak beste; non, Practicum III-ko egonaldia burutu nuen. Ikastolak euskararekiko duen atxikimendua eta lotura dela bide, GrAL osatzeko abagune aproposa iruditu zitzaidan. Gauzak horrela, euskararen erabilera eta egoerari buruzko galdera irekien bidezko galdetegia diseinatu nuen, euskara sustatzeko estrategiak garatzen lagungarri suerta zekidan (ikus 21. eranskina: Gradu Amaierako lanaren galdetegia). Practicum III-ko jarduna bukatu baino lehen, galdetegiak ikastolako hezkuntza arloko sei profesionali helbide elektronikoetara bidali nizkien.

Galdetegia jaso zuten norbanakoen artean, orotariko profil profesional eta linguistikoko langileak zeuden: esperientzia gutxiko irakasle gazteak, esperientzia handiko irakasle esperientziatuak, euskara 1H gisa zuten hezitzaileak, gaztelania ama zein lehen hizkuntzatzat zuten profesionalak edota ikastetxeko idazkaria, esaterako. Aniztasun horrek euskararekiko ikuspegi eta ikuspuntu ezberdinak emango zizkidalakoan nengoen, eta, beraz, aberasgarritzat hartu nuen. Bildutako datu oro erabili ez arren, galdetegiaren bidezko erantzunak lagungarriak izan ziren oso; egitasmoaren zein proposamenaren norabidea bideratzea ahalbidetu zidaten eta.

Praktika aldia amaitu aurretik, halaber, euskararen erabilera sustatzeko ekimena garatu nuen Armentia Ikastolan: euskara biltegia izeneko bloga. Euskarazko hiztegia gogoratzeko hainbat haurren zailtasuna ikusita, haurrek ikasgelan igorritako gaztelaniazko hitzak (unean-uneke gaiekin lotutako gaztelaniazko hitzak), detektatu, euskaratu eta soinu erantsi nizkien (ikus Ballesteros, 2016: Euskara biltegia). Horrez gain, ikasgelako gurasoen euskara ezagutza eta erabilera mailak bildu nituen, etorkizunari begira baliagarri suertatuko zitzaizkidalakoan (ikus 22. eranskina: Armentia ikastetxeko familien hizkuntza ezagutza eta erabilera (3 urteko ikasgela).

Armentia Ikastolan, esan bezala, euskara sustatzeko hainbat ekimen garatu izan dira, "Euskal Jolasak" jarduera sorta, esaterako; zeinetan euskaraz jolasteko aukera duten haurrek. Jarraian aurkeztuko dudan jolas bilduma ere, izen berekoa dugu. Aitzitik, bestelako panoramika agertuko du, Armentia Ikastolakoarekin zerikusirik ez duena. Izan ere, gaur egun, oso ohikoa da hezkuntza eredu formalari soilik garrantzia ematea, hezkuntza eredu ez-formala ahantziz.

Horregatik, proposatutako dinamikak euskara sustatzeko ekintzak bai ikasgelan (hezkuntza eredu formala) bai patioan (hezkuntza eredu ez-formala) abiaraziko ditu. Azken batean, patioak euskalduntzeko jardunean, ezin ikasgela ahaztu; euskara bi eremuetan

sustatzean baitatza egitasmoa. Horrek, hezkuntza-sisteman gutxitan lotzen diren bi hezkuntza esparru uztartzea ahalbidetuko du: hezkuntza eredu formala eta ez-formala.

## **5.2. Azalpena eta ikuspegi kurrikularra**

"Euskal Jolasak" Haur Hezkuntzako 3 urteko ikastaldetan burutzeko 30 jolasez osatutako jolas bilduma da. Jolasok euskaraz garatzeko diseinatuak dira eta bi eredu (formala eta ez-formala) arteko hizkuntza aldetiko batasuna du xede, eredu ez-formalak ez baitezkan gaztelaniaz mintzatzerik ekarri. Hortaz, dinamika honek euskararen erabilera sustatzea izango du helburu, ikasgelan nahiz patioan; erronka nagusia patioetan (hezkuntza ez-formalean) sustatzea izan arren.

Ekintza sorta Gasteizko hezkuntza errealtatean txertatze aldera, Armentia Ikastolako ordutegi zein egutegian (Armentia Ikastola, 2015) oinarrituta jardungo dut, jardueri testuinguru akademikoa eta hezkuntzari lotutako plangintza errealia luzatzearen (ikus 19. eranskina: "Euskal Jolasak" dinamikaren egutegia). Dena dela, Gasteizko eta Euskal Herriko edozein ikastetxetan abiarazteko prestatua dagoen dinamika izan daiteke honakoa; tokian tokiko errealtatearen eta adinen arabera egokituta, betiere.

"Euskal Jolasak" jolastorduetan euskara mintz-praktikara eramatea erronka gisa izan arren, patioa ez da jarduteko esparru bakarra izango, jarduerak ikasgelan ere, aurrera eramango dira eta. Bestalde, gerora patioan praktikan jarriko diren jolasak ikasgelan alde aurretik azaldu eta martxan jartzeko aukera izango dute hezitzaileek; ikastaldearen nahien eta beharren arabera. Ezin ahaztu, bestalde, hezitzaileek bideratzaile, dinamizatzaile eta laguntzaile rola jokatu dituztela, euskararen erabilera sustatzea eta haurren gozamina begi-bistatik aldentu barik.

Proposamen didaktiko mota honek Urtxintxa erakundeak (Urtxintxa, 2010) aurkeztutako 30 jolas biltzen ditu, hala ikasgelan, nola jolastokietan euskaraz garatzeko. Aipatutako jolasetan, dena den, hainbat moldaketa egin izan dira, 3 urteko ikasleen gaitasun eta beharrei erantzute aldera. Era berean, jarduerak garatzerakoan, EAEko Haur Hezkuntzako Oinarriko Curriculum Dekretua (OCD) (EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, 2009) aintzat hartua izan da; proposamenari ikuspegi kurrikularra emateko asmoz.

Gauzak horrela, lau izango dira proposamen didaktikoaren gaitasun orokorrak, egitasmoaren helburu orokorrak ere, lau ditugula. Adierazitako gaitasun eta helburu

orokorrekin batera, Curriculumeko esperientzia-eremuei dagozkien gaitasunak, edukiak eta ebaluazioa tauletan izango dira aztergai (ikus 20. eranskina: Euskal Jolasak EAEko Curriculumari dagokionez).

### 5.3. Programazioa

Egitasmoaren programazioari oratu, eskola egutegi errealean praktikan jartzeko 15 asteko proposamen didaktikoa dugu honakoa. Halaber, asteko 2 egun baliatzeko proiektua da, irailtik otsailera bitartekoa (ikus 19. eranskina: "Euskal Jolasak" dinamikaren egutegia). Egitasmo hau, esan bezala, 2 euskal jolas astero abiarazteko diseinatua da, ikastetxe eta ikastaldean erritmoen arabera moldagarria izan daitekeena. Horrenbestez, proposaturiko dinamika, astelehen eta asteazkenetan garatzekoa da.

Aste hasieran kokatzearen arrazoiak hurrek astean zehar jasaten duten zama fisiko eta akademikoari dagokio, bai eskolaren bitartekoa, bai eskolaz kanpoko jardueretakoak. Horrenbestez, umeak sasoitsu, indartsu eta bizitasun handiagoz diharduten sasoiaren abiarazteari egoki izan deritzot; aste hasierako egunetan, alegia. Bestalde, asteko bi saioak jarraian ez garatzea deliberatu dut, umeek jolas librean aritzeko aukera izan dezaten eta hauek egitasmoaz neka ez daitezen. Gauzak horrela, jolasak egun ezberdinetan - astelehen eta asteazkenetan - eramango dira aurrera, saioen artean egun bateko tartea utzita.

Astelehenetako azken denbora tartean (11:45-12:15) jolasak ikasgelan azaldu eta hauek abiaraziko dira - ikasgela barruan aurrera eramateko aproposak direnak soilik - eta asteazkenetan, aldiz, patioan garatuko dira atsedenaldira garaietan (10:00-10:30) hezitzaileen laguntzarekin batera (ikus 19. eranskina: "Euskal Jolasak" dinamikaren egutegia). Denbora tarteari helduta, astelehenetako azken saioan garatzea interesgarria iruditu zait. Asteko lehenengo eguna izanik, umeek asteburuan zehar denbora tarte luzea ematen dute eskolara bertaratu gabe. Hortaz, askatzeko energia gehigarria izan ohi dute, atsedenaldira garaiarekin soilik askotan asebetetzen ez dutena. Horregatik, eguneko azken ordua, jolasteko, mugitzeko, ekintzak praktikatzeko eta energia askatzeko une baliagarria izan daiteke.

Asteazkena, bestalde, asteko bigarren saioa bideratzeko egun aproposa iruditu zait. Azken batean, astegunen artean erdikoa dugu, hots, ez dago aste amaieran kokatua, non haurrak nekatuago egon ohi diren. Hori dela bide, jolasen dinamika ulertzeko eta bertan jarduteko gogotsuago egongo omen dira, aste bukaeran baino. Gainera, asteleheneko saioarekin egun bateko tartea uztea ahalbidetzen duenez, egokia iruditu zait bigarren saioa

asteazkenetan kokatzea. Finean, berdinekin jolas librean aritzeko abaguneak izatea ere, garrantzitsua da oso.

Orotara, mota askotariko jolasak aurkeztuko dira jolas bilduma honetan: animazio jolasak, baloi jolasak, atzamar eta esku jolasak, ezkutaketa jolasak e.a. Era berean, diseinaturiko jolas orok taula bana agertuko du jarraian datozen orrietan; jolasaren izena, hurren adina zein kopurua edota baliatutako materialak azalduz, besteak beste. Audioa entzungai duten abestietan, bestalde, ez da materialetan audioa beharrezkoa denik adieraziko, hautazkoa baita berau baliatzea edo ez.

Jolas bilduma honetan hezitzaileek hurrekin batera jardutea deliberatu dut; hezkuntza eragile aktibo izaten jarrai dezaten haurrentzako hain garrantzitsu den jolasean ere bai. Izan ere, hezkuntza arloan adituak ditugun Sánchez eta Goudena irakasleek honakoa berretsi zuten 1996an argitaratutako hezkuntza ikerketa batean: "Gracias a la interacción con ellos, niños y niñas se convirtieron en constructores activos de su propio mundo social" (Sánchez eta Goudena, 1996, in Hernández, J., Peña, J. V. eta Rodríguez, M. d. C., 2004: 455). Hortaz, badirudi jolasak ez ezik, bertan jazotzen diren haur-hezitzaile eta berdinen arteko elkarrekintzek ere, garrantzi adierazgarria dutela.

Azkenik, eskuartean dugun proposamen didaktikoa ikastetxeetako urteko plangintzan garatzen diren programazioekiko osagarria dela adierazi beharra dago. Ildo horretatik, hezitzaileen ardura izango da hurrei proposamen didaktikoa motibagarria eta aberasgarria suerta dakiela eta bertan parte-hartzera animatzea.



## 5.4. Jolas bilduma

### 5.4.1. 1. Jolasa: Aulkiena

1. JOLASA: AULKIENA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	AULKIAK	IKASGELA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio137.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio137.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Saltoka eta brinkoka korro korroan (bira-biraka), den denak gabiltza aulkien ondoan. Lalara, lalara...</p> <p>Musika pozgarri hau isiltzen bada, eseri behar duzu aulkitxo batean. Lalara, lalara...</p> <p>Guztiok aulkietan eseritzean, nor geldituko da jokutik kanpora. Lalara, lalara...</p>		<p>1) Aulki-jolasean haur askok har dezakete parte.</p> <p>2) Jokalari baino aulki bat gutxiagoz osatu behar da borobil bat eserlekuak haurrak dauden aldera begira direlarik.</p> <p>3) Abestia kantatzen hasi eta aulkien inguruan hasten dira bueltaka korrituz ala dantzatzuz harik eta jokoaren "arduradunak" geratzeko zeinua (txaloa, txistua...) egiten duen arte.</p> <p>4) Orduan jokalariek eserleku batean eseri behar dute eta lekua aurkitzen ez duena kanporatua izaten da. Aulki bat kendu eta lehengo eran jarraitzen da kantatuz eta kanporatuz jokalaria bakarra geratu arte.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> haurrak jolastu gabe geratu ez daitezten ez da kanporaketarik egongo. Haurren kopurua baino aulki bat gutxiago egongo da baina ez da inor kanporatuko.</p>	

#### 5.4.2. 2. Jolasa: Nor da dantzari?

2. JOLASA: NOR DA DANTZARI?			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio122.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio122.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Nor da dantzari jai handi honetan. Zuen pozgarri hementxe bertan. Dantza ezazu zuk, Garazi*, nirekin. Dantza ezazu, zuk badakizu.</p>		<p><b>1)</b> Abestiari jarraikiz, euskal estiloan dantza egingo dugu, besoak gora altxatu eta kriskitinak (eskuekin soinu egin) joz. Hasieran jolaskide guztiak bat izan ezik korroan ipiniko dira.</p> <p><b>2)</b> Bat hori korroaren erdian ipiniko da eta egokitzen denean (asterisko batez nabarmenduta dago abestian), korroko kide baten parean ipini eta bere izena esango du.</p> <p><b>3)</b> Ondoren biak korroaren erdian ipiniko dira eta kantuari ekingo zaio berriro. Izena esatea berriro egokitzen denean, bi jolaskideok beste jolaskide bana aukeratu eta korroaren erdira ekarriko dituzte.</p> <p><b>4)</b> Etenik gabe, gauza bera egingo da, alegia abestia behin eta berriz errepikatuko da, korroko kide guztiak erdian aurkitzen diren arte.</p>	

### 5.4.3. 3. Jolasa: Arrautzaren atzamarren jolasa

3. JOLASA: ARRAUTZAREN ATZAMARREN JOLASA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio142.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio142.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ATZAMAR JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Honek arrautza erosi, honek gatza bota, honek frijitu, honek pixkat dastatu, honek dena zurrupatu.</p>		<p><b>1)</b> Jolas honen Zeraingo bertsio herrikoia hautatu dugu eta musika asmatu.</p> <p><b>2)</b> Banan-banan erakutsi behar dira eskuko hatzak abestiak dion eran, txikitik hasi eta lodienera arte.</p> <p>* Gorputz-atalak lantzerakoan, atzamarrak identifikatzeko abesti egokia.</p>	

#### 5.4.4. 4. Jolasa: Bat, bi, hiru, eguzki!

4. JOLASA: BAT, BI, HIRU, EGUZKI!			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	PATIOA
AUDIOA			
-			
JOLAS MOTA			
EZKUTAKETA JOLASA			
BEREZITASUNAK		AZALPENA	
<p>"Betetzen dagoen" pertsonak norbait mugitzen ikusiko balu, pertsona hura ahal den neurrian deskribatzen saiatuko litzateke.</p>		<p><b>1)</b> Jolasari hasiera eman aurretik, zotz egiteko jolas baten bidez aukeratuko da bete nor izango den. Jokalari hori pareta baten kontra jarriko da, besoekin begiak estalita. Beste jokalari guztiak paretatik hamar bat metrora jarriko dira jolasa hasteko. Horien helburua paretaraino iristea izango da.</p> <p><b>2)</b> Betetzen dagoenak "bat, bi, hiru, eguzki" esango du eta bira emango du beste jokalariei begiratzeko. Beste guztiak aurrera mugituko dira, bete denak "bat, bi, hiru, eguzki" esaten duen bitartean. Baina esaldia bukatutakoan gelditu egin beharko dira, betetzen dagoenak mugitzen ikus ez ditzan. Mugitzen ikusiz gero atzera itzuli beharko dute. Paretara iritsitakoan "eguzki!" esan beharko dute, eta pareta ukitu.</p> <p><b>3)</b> Denak paretaraino iritsi direnean, betetzen dagoenari hatzetatik helduko diote. Horrek "eguzki!" esango du eta hori entzundakoan beste guztiek korrika alde egingo dute. Bidean bete denak norbait harrapatuko balu, azken hori bete izango da hurrengo txandan.</p> <p>* <b>BETE IZAN:</b> "Bat, bi, hiru, eguzki" esan eta hormaren aurka dagoen arduraduna.</p>	

### 5.4.5. 5. Jolasa: Eskutik helduta

5. JOLASA: ESKUTIK HELDUTA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio130.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio130.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Eskutik helduta gaude, borobil bat eginez, arras pozik gabiltza, itzul anitz emanez.</p> <p>Eskuina, ezkerra, urrats bat aurrera*; eskuina, ezkerra, urrats bat atzera; eskuina, ezkerra, urrats bat aurrera; eskuina, ezkerra, ipurdiz lurrera.</p>		<p><b>1)</b> Jarri korroan eta abestian ematen diren aginduak bete behar dira.</p> <p><b>2)</b> Batean eskuinera, bestean ezkerrera, aitzinka (aurrera), gibelka (atzera), azkenik ipurdi gainean eroriz.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> hurrek aitzin eta gibel terminoak kontrolatzen ez badituzte, aurrera eta atzera hitzok barneratu daitezke.</p>	

### 5.4.6 6. Jolasa: Soka hegalaria

6. JOLASA: SOKA HEGALARIA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 3 PERTSONA	Soka/ Erratza	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_110.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_110.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Haurrak korroan, soka/ erratza* erdian, erdikoa biraka, besteak hegaka. Salto eta salto, gira eta bira, erratzak ukitzen bazaitu, jokotik kanpo gelditu.</p> <p>* Soka edo erratza erabiltzearen arabera</p>		<p>1) Biribilean jarrita erdian pertsona bat jartzen da soka eskuetan duela.</p> <p>2) Lurraren paraleloan eta altuera baxuan birak ematen hasten da.</p> <p>3) Gainontzekoek soka beren parera datorrenean salto egingo dute. Norbaiti sokak jotzen dionean soka mugitzearen arduraduna izango da.</p> <p>4) Sokaren ordeztzatza erratza ere erabil daiteke.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> pertsonak kanporatu ordeztzatza, soka mugitzearen arduradun bilakatuko dira sokak ukitzen dituen pertsonak.</p>	

### 5.4.7. 7. Jolasa: Ni jaio nintzen

7. JOLASA: NI JAIO NINTZEN			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ PERTSONA 1	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio151.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio151.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
TXALO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Ni jaio nintzen, txiki-txikia. Ni jaio nintzen Eguberritan (udaberrian). Asko jaten nuen, ñan, ñan, ñan, ñan, ñan. Asko jaten nuen esne eta taloa. Laster egin nintzen handi-handia. Laster egin nintzen ama bezala Ama eta aita bezain handia. Lalara, lalara...</p>		<p><b>1)</b> Haur txikientzako txalo-abestia da “Ni jaio nintzen”. Kantuaren erritmoa jarraitzen da nahi den eran txalo joz.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> Abestiak erritmo bizia duenez, erritmo mantsoagoa erabiltzea gomendatzea haurrek abestia ulertu eta txaloak egoki jo ditzaken, erritmoari jarraikiz.</p>	

### 5.4.8. 8. Jolasa: Sugea

8. JOLASA: SUGEA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 3 PERTSONA	Soka	PATIOA
AUDIOA			
-			
JOLAS MOTA			
SOKASALTO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
Siga saga sigi saga Sugea dabil lurrean Sigi saga sigi saga Sugea dabil lurrean Kontuz, ez zapaldu! Salto egin airean		<b>1)</b> Soka abestiarekin batera suge baten antzera mugitu behar da. Haurrak gainetik salto egin behar dute soka zapaldu gabe.	



### 5.4.9. 9. Jolasa: Kote-kote

9. JOLASA: KOTE-KOTE			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	MUGARIK GABE	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_95.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_95.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p style="text-align: center;">Kote kote kote kote Abes(tu) dezagun txaloka Kote kote kote kote Abes(tu) dezagun txaloka, Jei!!</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> jarraitu beharreko urratsak sinpletu ditudan arren, (are) gehiago sinpletu behar izatekotan, egokitu daiteke; ikastaldearen trebetasun, nahien eta beharren arabera.</p> <p>Beste aukera bat izterrak jo beharrean txaloak jotzea litzateke eta tokiz aldatu beharrean, besoak altxatu tokitik mugitu barik.</p>		<p><b>1)</b> Jolaskide guztiak lurrian edo aulkietan biribil bat eginez eseriko dira. Abestia abesten duten bitartean, eskuakin izterrak jotzen arituko dira.</p> <p>Lehendabizi, bakoitzak bere izterrak joko ditu: eskuineko eskuarekin eskuineko izterra, eta ezkerreko eskuarekin ezkerreko izterra.</p> <p>Azkenik, eskuineko eskuarekin, gure eskuineko daukagunaren ezkerreko izterra joko dugu, eta ezkerreko eskuarekin gure eskuineko izterra.</p> <p><b>2)</b> Mugimendu horiek errepikatzen jarraituko dugu abestia bukatu arte. Orduan besoak altxatuz "<b>Jei!</b>" esango dugu, eta zutitu eta eskuinean dugun aulkian eseriko gara.</p> <p>Abestia behin eta berriro errepikatuko dugu, gero eta azkarrago.</p>	

#### 5.4.10. 10. Jolasa: Etxetxoa

10. JOLASA: ETXETXOA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_3.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_3.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Nik etxetxo bat daukat</p> <p style="padding-left: 40px;">ederra, ederra</p> <p style="padding-left: 40px;">atea jotzen dut</p> <p style="padding-left: 40px;">horrela- horrela</p> <p style="padding-left: 40px;">leihoak irekitzen</p> <p style="padding-left: 40px;">horrela, horrela</p> <p style="padding-left: 40px;">eta tximiniatik</p> <p style="padding-left: 40px;">kea gora-gora doa</p> <p><b>* MOLDAKETA:</b> abestiaren abiadura aldatu daiteke, azkartuz edota motelduz.</p>		<p>1) Imitazio jolas honetan jokalaria batek abestiaren esaldiak esan behar ditu eta beste jolaskideek errepikatu egingo dituzte honek esandakoa eta egindako keinuak.</p> <p>2) Mugimenduak hauek izan daitezke:</p> <p><b>"Nik etxetxo bat daukat ederra, ederra":</b> beso eta eskuekin etxe bat marraztu airean.</p> <p><b>"Atea jotzen dute horrela, horrela":</b> atea jotzeko keinua egin lehenengo eskuineko eskuarekin eta ondoren ezkerrekoarekin.</p> <p><b>"Leihoak irekitzen horrela, horrela":</b> leihoak irekitzeko keinua egin.</p> <p><b>"Eta tximiniatik kea gora-gora doa":</b> bi eskuak elkartu eta gorantz mugitu kea izango balitz moduan.</p> <p>3) Abestia gidatuko duen jolaskidea aldatuz joango da txandaka. Lagun guztiak gidariak izan direnean bukatuko da jolasa.</p>	

### 5.4.11. 11. Jolasa: Do, re, mi

11. JOLASA: DO, RE, MI			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio155.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio155.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Do, re, mi            euria du hasi.            mi, fa, sol            aterki, guardasol.            sol, la, si            putzuan erori.            si, do, re            bustita gaur ere.            re, mi, fa            banao etxera.</p>		<p>1) Txalo-joko honetan ere, txalo jotzeko modua adostu eta, binaka edo korroan, abestia kantatu behar da erritmoa jarraituz.</p>	

#### 5.4.12. 12. Jolasa: Dantzari txikitxo

12. JOLASA: DANTZARI TXIKITXOA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 5 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio136.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio136.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
LERROKAKETA JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Dantzari txikitxo bat kanean hor dabil.</p> <p>Neskatxa ikusi du eta dantzan nahi du egin, dantzan nahi du egin.</p> <p>Emaidazu eskua tori nirea hona hemen bestea baita ere neurea.</p> <p>Kanean hor dabilta biak elkarrekin.</p> <p>Dantzari doaz eta helduta eskutik, helduta eskutik.</p>		<p>1) Parez pare jarrita hurrek bi ilara osatuko dituzte.</p> <p>2) Bi ilaren artean haur dantzaria ibiliko da aurrera eta atzera denek abesten duten doinua dantzatzuz.</p> <p>3) Abestiak dioenean beste haur bat aterako du erdira, biek dantzatzen jarraituko dutelarik abestia amaitu arte.</p> <p>4) Hau bukatzerakoan lehenengoa ilarara itzuliko da eta bigarrena dantzan hasiko da berriro.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> erdira dantzari berri bat ateratzeko dantzan zebilen haurrak berak edota irakasleak (haurrak denbora tarte batean erabakitzen ez badu) hautatuko dute, jarduera errazteko.</p>	

### 5.4.13. 13. Jolasa: Banpiroa

13. JOLASA: BANPIROA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_17.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_17.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ESKU JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Banpiro bat naiz  banpiro bat naiz  erdi zoro nago  baraba  goizetan ikasten dut  hamabiak jotzen dutenean  txotxolotu egiten naiz  baraba  uu aa uuu a  baraba  uu aa uuu a  nire aita Drakula da  nire ama bere alaba  anai bat ere  badaukat  baina xurgatzen  onena naiz</p>		<p><b>1)</b> Binaka jolasteko jolasa da. Abestiarekin batera aurrez aurre jarritako bi jolaskidek eskuez mugimendu batzuk egin behar dituzte. Kantatzen hasi aurretik bakoitzaren eskuak elkartuz bikotearen eskuak jo behar dituzte "<b>Ban-pi-ro-bat-naiz</b>" esanez. Kantatu bitartean ere, eskuak, bakoitzaren eskuak elkartuz bikotearen eskuak jo beharko dituzte.</p> <p><b>2)</b> Abestiak "<b>baraba, uu-aa-uuu-a</b>" esaterakoan eskuak eta gerria alde batera eta bestera mugituko ditugu, azkeneko "<b>a</b>" esatean eskuak aurpegi parean jarri eta atzamarrak aurrera begira ditugula banpiro aurpegia jarriko dugu.</p> <p>Abestiaren bigarren zatia lehengoa bezala egiten da.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> jolasa asko sinpletu dut, originalak 10 keinu ezberdin biltzen zituelako, hitz ezberdinekin keinu eta mugimendu ezberdinak nahastuz. Errazegia izatekotan, keinuak areagotu daitezke.</p>	

#### 5.4.14. 14. Jolasa: Ping pong pilota

14. JOLASA: PING PONG PILOTA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 3 PERTSONA	-	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_37.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_37.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Ni ping pong pilota naiz eta salto, salto, salto, saltoka ari naiz. Ukitzen bazaitut salto egin (e)zazu. Ukitzen bazaitut salto egin (e)zazu.</p>		<p>1) Jolaskide guztiak borobilean jarriko dira barrura begira. Korroaren erdian haur batek abestia abestuko du salto egiten duen bitartean.</p> <p>2) Abestuz "<b>ukitzen bazaitut</b>" esaldia esaterakoan, erdiko haurrak biribilean dagoen jolaskide baten burua ukitu dezake. Ukitutako laguna zutik jarriko da, eta biak hasiko dira saltoka biribilaren erdian, abesten duten bitartean.</p> <p>3) Gauza bera egiten da lagun guztiak saltoka jarri arte. Abesti bakoitzean, erdian saltoka ari direnek lagun bana uki dezakete. Saltoka aritzerakoan ezin da beste saltokarien gorputza ukitu.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> hurrek behin jolasaren dinamika hartua duen, aldaerak sartu daitezke; hala nola, salto egin besoak altxaturik edo txaloak emanaz e.a.</p>	

#### 5.4.15. 15. Jolasa: "Ingurumika"

15. JOLASA: "INGURUMIKA"			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio146.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio146.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Bira-bira eta kate, zozo-zozoa balkate, Ibarrangeluan alkate (e)ta Bilbon erregidore. Gure auzoko Izaro* ere, atzera jira-bira liteke.</p> <p>* Edozein jokalariren izena esan</p>		<p>1) "Ingurumika"rekin borobilean jarri zutik eskutik helduta eta bueltaka hasi abestia kantatuz.</p> <p>2) Abestiak atzera jiratzeko esaten duenean jokalaria baten izena aipatu eta honek atzera biratu behar du korroko guztiak era berean atzera begira jarri arte.</p> <p>3) Denak kanpoaldera jiratu direnenean, berriz barrualdera biratu behar da hasierako puntura iristeko.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> abestiaren erritmoa oso bizia da. Horrenbestez, hasieran behintzat erritmoa moteltzea gomendatzen da.</p>	

#### 5.4.16. 16. Jolasa: Aideketan gomarekin

16. JOLASA: AIDEKETAN GOMAREKIN			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 3 PERTSONA	GOMA	PATIOA
AUDIOA			
-			
AZALPENA			
GOMA JOLASA			
BEREZITASUNAK		JOLAS MOTA	
<p>* <b>MOLDAKETA:</b> hiru urteko umeekin irakasleak izango dira hasierako goma eustearen arduradunak (hasieran sinpletzeko). Behin dinamika hartuta, haurrak goma eusten has daitezke, nahi izatekotan. Haurrek goma eutsi beharko balute, euren behealdean dituzten gorputz atalak soilik (orkatilik, belaunak edota ipurdia) erabiltzea gomendatzea, istripuak ekiditeko.</p>		<p>1) Bi lagunek goma orkatilen inguruan jarri eta horrela eutsiko diote. Beste jokalaria guztiek gomaren gainetik salto egin beharko dute goma ukitu gabe, Denek pasatzea lortuz gero, gomari gorago eutsiko diote: orkatiletan, belaunen atzealdean, ipurdian, gerrian</p> <p>2) Lehenengo lau maila ondo pasatuz gero, goragoko altuerak saiatu beharko dira. Maila hauekin goma hankekin ukitzea onartzen da, Goma altuera handian dagoenean, buruz behera pasatzea ere onartzen da, hau da, eskuak lurrean jarri eta hankekin goma jaitsi ondoren pasatzea: besapeetan, galtzarbeetan, lepoan, sudur eta belarri parean, buru gainean e.a.</p>	



#### 5.4.17. 17. Jolasa: Ikusi, ikusi han!

17. JOLASA: IKUSI, IKUSI HAN!			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_104.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_104.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Ikusi, ikusi han! Teilatu gainean.                      Kriston aberea triziklo batean.                      Tronpa du aurrean, isatsa atzean.                      Ja, ja, ja! Elefantea da!</p>		<p>1) Abestiak dioena keinuka egin.                      * <b>MOLDAKETA:</b> behin abestia ikasia, frogatu daiteke abestiaren pasarteak kenduta; keinuak eta kanta abesteko (entzun audioa).</p>	

#### 5.4.18. 18. Jolasa: Txakolinke

18. JOLASA: TXAKOLINKE			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ PERTSONA BAT	2 MAKIL EDO SOKA (Partaide bakoitzeko)	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio153.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio153.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
SALTOKA ARITZEKO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Txakolin, txakolin, txakolinak on egin, txakolin, txakolin, txakolinak eman dio Marixuri zer egin</p> <p>Azunberdi pitxerrean kuartilu (e)ta erdi sabelean txakolin, txakolin, txakolinak on egin.</p> <p>Txako (e)ta txako txako (e)ta txako txako (e)ta txako txakolinaren gozoa</p>		<p><b>1)</b> Gurutzatu bi makila/ soka lurrean X ikurra irudikatuz; parean geratu diren espazioetan oin bana jarri eta saltoka jardun behar da bi oinak batera ari direlarik.</p> <p><b>2)</b> Adi! salto bakoitzeko espazioak aldatu egin behar dira. Hasieran mantsoago, gero azkarrago.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> hasieran, sokak jarri eta espazioak aldatu beharrik gabeko salto arruntak egitea gomendagarria izan daiteke, zailtasuna gradualki igota.</p>	

#### 5.4.19. 19. Jolasa: Gure herriko alkatea

19. JOLASA: GURE HERRIKO ALKATEA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio147.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio147.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Gure herriko alkatea kate, kate, katea; alkate dotorea tore, tore, torea.</p> <p>Jazten duen trajeak traje, traje, trajeak; tomate kolorea lore, lore, lorea.</p> <p>Gure herriko alkatea kate, kate, katea; alkate xelebrea lebre, lebre, lebre.</p> <p>Haretxen bibotea bote, bote, botea; fideo luzez betea bete, bete, betea.</p>		<p>1) Hurrek, binaka edo korroan, aurrez adostutako moduan joko dute txalo abestiaren erritmoa jarraituz haren amaiera arte.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> interesgarria izan daiteke hurrek erritmoaren kontrola garatzeko erritmo motela erabiltzen hastea eta pixkanaka-pixkanaka azkartzen joatea.</p>	

#### 5.4.20. 20. Jolasa: Txitxirri mitxirri

20. JOLASA: TXITXIRRI MITXIRRI			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 3 PERTSONA	-	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio109.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio109.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ESKU JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Txitxirri-mitxirri, komuni pan.  Nire semea errotan.  Joan nintzen mendira,  ikusi nuen erbi bat,  bota nion harri bat,  atera nion begi bat.  Zelemiñe kanpan,  zelemiñe kanpan.  Gari, gari, gari, gari. Hau!</p>		<p>1) Hurrek hatz bana jarriko dute hezitzailearen inguruan eta abestiak irauten duen bitartean helduak behatzok ukituko ditu txandaka.</p> <p>2) Kantua “gari, gari, gari...”-ra heltzen denean, hurrak erne ipiniko dira, “hau!” esatearekin batera (ez lehenago), hatzak kendu beharko baitituzte agudo, helduak ez harrapatzeko.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> beste aldaera bat izan liteke hurren hatza hartu ordez hurre bera harrapatzea. Alegia, “gari, gari, gari” esatearekin batera hurrek ihes egingo dute eta helduak horietariko bat harrapatu beharko du.</p>	

### 5.4.21. 21. Jolasa: Lehoi baten bila noa!

21. JOLASA: LEHOI BATEN BILA NOA!			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_79.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_79.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA			AZALPENA
1) Lehoi baten bila noa handiena hartuko dut ez dut beldurrik begira zenbat lore Aja! Aja!	4) Itsasoa itsaso zabala itsaso zabal- zabala itsaso zabal, zabal, zabala murgildu naiz igeri egin dut atera naiz	Biboteak! Muturra! Ahoa! Hortzak! Lehoi bat! Buelta eman dut korrika egin dut kobazulotik atera naiz	<p>1) Hezitzailea haur guztien aurrean jarriko da edo, biribila egiten badute, biribilaren erdian kokatuko da. Irakasleak abestia zatika abestuko du, abestiaren hitzak keinuen bidez antzeztuz. Hori isiltzen denean, beste jokalaria guztiek hark esan eta antzeztutakoa errepikatu beharko dute:</p> <p><b>"Lehoi baten bila noa"</b>: oinez joatearen antzezpena</p> <p><b>"Handiena hartuko dut"</b>: besoak asko zabaldu</p> <p><b>"Ez dut beldurrik"</b>: ausarta aurpegia jarri eta hatz batekin ezezko keinua egin</p> <p><b>"Begira zenbat lore"</b>: hatz erakuslearekin lurra seinatu</p> <p><b>"Aja! Aja!"</b>: eskuak gerrian jarri eta gorputza alde batera eta bestera mugitu.</p> <p>2) Hemendik aurrera, esaten denaren antzezpena aurrean dagoenak asmatu behar du, eta beste guztiek horrek egindakoa errepikatuko dute.</p> <p>* <b>MOLDAKETA</b>: 2. Atala frogatu daiteke eta zaila izatekotan, 1. atala soilik egin. Gerora, irakaslea aurrean egon beharrean haurrak aurrean jartzen has daitezke.</p>
2) Zuhaitz bat zuhaitz luze bat zuhaitz luze, luze bat! Zuhaitz luze, luze, luze bat! Igo naiz begiratu dut jaitsi naiz	5) Lehoi baten bila noa handiena hartuko dut ez dut beldurrik begira zenbat lore Aja! Aja!	itsasoa sartu naiz igeri egin dut itsasotik atera naiz zuhaitzera igo naiz zuhaitzetik jaitsi naiz etxera joan naiz ohe azpian sartu naiz	
3) Lehoi baten bila noa handiena hartuko dut ez dut beldurrik begira zenbat lore Aja! Aja!	6) Kobazulo bat kobazulo ilun bat kobazulo ilun-ilun bat kobazulo ilun, ilun-iluna sartu naiz begiratu dut ukitu dut buru bat! Bi belarri! Bi begi!	7) Lehoi baten bila nindoan ez nuen handiena hartu beldurra izan nuen begira zenbat lore Aja! Aja!	

#### 5.4.22. 22. Jolasa: Perretxikoa

22. JOLASA: PERRETXIKOA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 3 PERTSONA	MUSIKA ENTZUTEKO APARATUA eta KLARIONA (Perretxikoa marrazteko)	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_79.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_79.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRIKA JOLASA			
BEREZITASUNAK		AZALPENA	
<p>* <b>MOLDAKETA:</b> irakasleen partaidetza jokoan garrantzitsua izango da jokoa egokitasunez garatzeko. Halaber, "Lehoi baten bila noa" abestia jarriko du irakasleak (aurretiaz landutako musika delako) musika aparatuan. Dena den, abestiak txandakatu eta aldatu daitezke, erakargarriago bihurtzeko.</p> <p>* <b>BETE IZAN:</b> Perretxikoan marraztutako laukiaren barruan egoteko arduraduna.</p>		<p>1) Jolasten hasi aurretik jolastokia mugatu behar dugu. Horretarako perretxikoa marraztuko dugu lurrean: borobil erdi handi bat eta honen azpian laukitxo txiki bat. Betetzea egokitu zaion laguna (hasieran irakaslea izan daitekeena) laukitxo txikian jarriko da borobil erdira begira. Beste jolaskide guztiek ilara osatuko dute laukitxoaren eskuinaldean.</p> <p>2) Irakasleak musika jarriko du eta haurrak musika bitartean perretxikoaren borobilera zuzenduko dira ilaran eta norabide zirkularrean. Musika eteterakoan laukitxo txikian dagoena borobilaren barruan sartuko da, betetzea egokitu zaionarekin batera.</p> <p>3) Jolaskide bat borobilaren erdian sartzen den bakoitzean eta musika bitartean barruan daudenean ere salto egin ahal izango dute, borobiletik atera gabe. Denak borobilaren barruan daudenean, laukitxo barruan dagoena korrika aterako da eta norbait harrapatzen saiatuko da (borobiletik atera aurretik harrapatu behar du).</p> <p>4) Baten bat harrapatuz gero, hurrengo txandan lagun hori izango da laukitxoaren barruan jarriko dena. Hasieratik errepikatuko da jolasa, beste abesti bat jar daitekeelarik.</p>	

### 5.4.23. 23. Jolasa: Kafe frantses batean!

23. JOLASA: KAFE FRANTSES BATEAN			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 4 PERTSONA	-	IKASGELA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_51.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_51.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Kafe frantses bate(a)n minue dantzatzen</p> <p>kafe frantses bate(a)n minue dantzatzen</p> <p>minue, minue</p> <p>minue dantzatzen</p> <p>Kafe frantses bate(a)n minue dantzatzen</p>		<p>1) Dantza egiteko jolas bat da. Jokalari guztiek ilara bat eginez biribila osatuko dute. Abesti osoa abesten duten bitartean mugimendu batzuk egin beharko dituzte. Kantua aurrera doan neurrian, gero eta mugimendu zailagoak egin beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hankak mugitu:</b> abesti osoa abesten duten bitartean oinak kanpoaldera mugituko dituzte, abestiaren erritmoari jarraituz. Lehengo eskuineko hanka eta gero ezkerrekoa mugitu behar dira, aurrerantz.</li> <li>- <b>Besoak mugitu:</b> abesti osoa abesten duten bitartean orain besoak zabaldu behar dituzte. Eskuineko besoa zabalduko dute aurrenik, eta ezkerreko besoa hurrenik.</li> <li>- <b>Burua mugitu:</b> abesti osoa abesten duten bitartean, burua alde batera eta bestera mugitu beharko dute. Aurrenik, burua eskuinerantz biratu behar da eta hurrenik, burua ezkerreara biratu.</li> </ul> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> plangintza originala 3 mugimendu motak uztartuz egiten da baina 3 urteko umeekin mugimendu independenteak egitea egokiagoa badirudi, duten garapenera egokitzearren. Dena den, ikastaldeak jardunari erraztasunez ekingo balio, mugimenduak uztartzeko aukera ere, badago.</p>	

#### 5.4.24. 24. Jolasa: Zubiri-zubiri

24. JOLASA: ZUBIRI-ZUBIRI			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 4 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_38.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_38.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
LERROKAKETA JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Zubiri zubiri nongori nongo nongo alkate zara zu? Frantziako erregearen seme-alabak gara gu.</p> <p>Zubi hon(e)tatik pasatzen dena hemen geldituko dela hemen geldituko dela.</p>		<p><b>1)</b> Bi lagun (Hasieran irakasleak izango dira eta gero, nahi izatekoan, ikasleak) aurrez aurre jarriko dira, eskutik helduta zubia osatuz. Beste jolaskideek ilara bat egingo dute, elkarri gerritik helduta. Zubia osatzen duen bikoteak, besteek entzun gabe, bi gauzaren artean aukeraketa egin beharko du: bi fruitu (sagarra ala udarea), bi kolore (gorria ala urdina), bi animalia (zaldia ala zakurra)...</p> <p><b>2)</b> Ondoren, denak abesten hasiko dira eta ilarako haurrak zubi azpitik pasatuko dira. Abestiak "hemen geldituko dela" esaten duen unean, zubia osatzen dutenek besoak jaitziko dituzte eta ilarako haur bat harrapatuko. Aurretik aukeratutako bi gauzen artean bat aukeratzeko eskatuko diote harrapatutakoari, eta hautatutakoaren arabera zubiaren alde batean edo bestean jarriko da, zubia osatzen duenari gerritik helduta.</p> <p><b>3)</b> Berrito abesteari ekingo diote ilarako haur guztiak banan-banan harrapatu arte. Bukaeran geratu diren bi taldeen artean sokatira moduko bat egingo dute: elkarri gerritik helduta talde bakoitza bestea eramaten saiatuko da.</p>	



#### 5.4.25. 25. Jolasa: Oso ondo

25. JOLASA: OSO ONDO			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_90.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_90.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Oso ondo egiten duzulako mugitu besoak olatuak bezala xuabe, xuabe Xu-xu-xuabe Jei! (izena) hasi dantzatzen!</p>		<p>1) Guztiak biribilean daudela, taldekide guztiak abestia abestuko dute. Bitartean lagun bat erdira aterako da, eta nahi dituen mugimenduak egingo ditu abestiaren erritmoari jarraituz. Biribilean dauden gainontzeko taldekideek erdikoak egiten duen dantza imitatu behar dute.</p> <p>2) Abestiaren azkeneko esaldia esaterakoan, "<b>Jei... (izena) hasi dantzatzen</b>", erdiko lagunak biribileko norbaiten izena esan beharko du; hori erdira pasatuko da, eta berriro hasiko da abestia.</p>	

#### 5.4.26. 26. Jolasa: Bote-bote botean

26. JOLASA: BOTE-BOTE BOTEAN			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ PERTSONA BAT	PARTAIDEAK ADINA PILOTA EDO BALOI	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_103.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_103.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
BALOI JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Bote, bote, botean, bote hanka artean, gero beste aldean, segidan aurrean, ondoren atzean, hurrena ezkerrean, baita ere eskuinean, eta azkenik, airean!</p>		<p>1) Pilota edo baloi bat hartu eta abestiaren erritmoan boteak ematen hasi. Abesten ari diren bitartean kantak dioena egin.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> abestiaren erritmoa, hasieran bereziki, mantsotzea gomendagarria da, begi-esku koordinazioa apurka-apurka garatzen joan daitezen haurrak.</p> <p>Bestalde, goizeko atsedenaldi garaian egin beharrean, arratsaldekoan egitea hobe litzateke, haur gutxiago egon daitezen eta guztientzako adina pilota eskura ditzagun.</p>	

#### 5.4.27. 27. Jolasa: Korro txirinbolo

27. JOLASA: KORRO TXIRINBOLO			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 2 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_74.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_74.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Korro txirinbolo zein polita den korro txirinbolo zein polita den hanka bat, bestea. Korro txirinbolo.</p> <p>Korro txirinbolo zein polita den korro txirinbolo zein polita den hanka bat, bestea, esku bat, bestea. Korro txirinbolo.</p> <p>Korro txirinbolo zein polita den korro txirinbolo zein polita den hanka bat, bestea, esku bat, bestea. Begi bat, bestea. Korro txirinbolo.</p>		<p>1) Jolaskide guztiek biribil bat osatu behar dute, elkarri eskutik helduta.</p> <p>2) Abestia abestearekin bat, biraka hasiko dira. Abestian zehar gorputz-atalak izendatzen direnean, jokalarari bakoitzak gorputzeko atal hori erakutsiko du.</p> <p>3) Ondoren, "<b>korro txirinbolo</b>" esatean, norberak bere tokian bira emango du.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> aurrekoetan bezala, gorputz-atalen koordinazioa bermatze aldera, erritmo mantsoagoa baliatuko dugu aurrenik, gerora azkartzeko. Haurrak oso trebeak balira eta jarduera aise burutuko balute, gorputz-atal gehiago barnera litezke.</p>	

#### 5.4.28. 28. Jolasa: Txirukaka

28. JOLASA: TXIRUKAKA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio119.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio119.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
ANIMAZIO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
Txirukaka, txirukaka, katxi, mari-maru, ei! Txirukaka, txirukaka, katxi, mari-maru, ei! Ñogi, ñogi, ñogi, katxi, mari-maru, ei! Ñogi, ñogi, ñogi, katxi, mari-maru, ei!		<ol style="list-style-type: none"> <li>1) Denak ilaran jartzen dira bata bestearen atzean gerritik edo sorbaldatik aurrekoari helduta.</li> <li>2) Txirukaka... esatean aurreraka doaz. "<b>Ñogi, ñogi, ñogi</b>" esatean atzeraka. Ei! esatean, berriz, besoak gora altxatzen dira.</li> <li>3) Erritmoa aldatzen doa: hasieran erritmo normala, ondoren azkarra, jarraian geldoa, segidan oso azkarra...</li> </ol>	

### 5.4.29. 29. Jolasa: Kaian nabil

29. JOLASA: KAIAN NABIL			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 5 PERTSONA	BENETAKO OTARRA ERABILI DAITEKE	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_10.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_10.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
LERROKAKETA JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Kaian nabil sardinak saltzen otarra buru gainean dudala kaian nabil sardinak saltzen erosi nahi al dituzu?</p> <p style="text-align: center;">(Elkarrizketa)*</p> <p>Ba goazen biok batera dantzara tralailaila tralaila orain tori otarra zuretzat eta ni banao, agur!</p> <p><b>* ELKARRIZKETA:</b></p> <p>-Sardina saltzailea: "Erosi nahi al dituzu?"</p> <p>-Aukeratutako haurra: "Bai"</p> <p>-Sardina saltzailea: "Zenbat?"</p> <p>-Aukeratutako haurra: "Hiru" (nahi duen zenbakia esango du).</p> <p>-Sardina saltzailea: "Tori, bat, bi eta hiru" (otarretik hiru sardina eman dizkiola antzetzuko du).</p> <p>-Aukeratutako haurra: "Zenbat da?"</p> <p>-Sardina saltzailea: "Bi euro" (nahi duen kopurua esango du)</p> <p>-Aukeratutako haurra: "Tori, bat eta bi" (dirua ematearen keinua egingo du) .</p>		<p><b>1)</b> Jolaskideak bi ilaratan aurrez aurre ipiniko dira. Beste lagun bat "sardina saltzailea" (irakasleak lehenengo, eredu gisa) izango da eta bi ilaran artean biribilketan arituko da, otar bat buru gainean duela antzetzten. Bitartean ilaratan daudenak txaloka eta abesten hasiko dira.</p> <p><b>2) "Erosi nahi al dituzu"?</b> esaldia abesterakoan "sardina saltzailea" ilaratako haur baten aurrean jarriko da (irakasleak lehenengo, eredu gisa) eta elkarrizketa hau izango dute: ikus ezkerreko zutabearen abestia.</p> <p><b>3)</b> Ondoren "sardina saltzailea" eta aukeratutako laguna besotik helduko dira eta erditik biribilketan arituko dira, ilaratan daudenak txaloka jotzen eta abestiaren bigarren zatia abesten duen bitartean.</p> <p><b>4) "Orain tori otarra zuretzat"</b> esaterakoan sardina saltzaileak aukeratutako bikotekideari emango dio otarra (edo hori antzetzuko du behintzat) eta ilara batean sartuko da <b>"eta ni banao, agur"</b> esanez. Orain otarra duen laguna hasieratik hasiko da.</p> <p><b>5)</b> Elkarrizketan badago ezezko erantzuna ematea. Hau da, <b>"erosi nahi al dituzu?"</b> galdetzerakoan <b>"ez"</b> erantzun daiteke. Hau gertatuz gero, "sardina saltzaileak" abestia hasieratik errepikatu beharko du sardinak beste bati saltzeko.</p> <p>* <b>MOLDAKETA:</b> jokoa bere osotasunean konplexua izan daitekeenez, 4. eta 5. atalak kendu daitezke, 3. atalean "sardina saltzailez" aldatuz eta aurretik zegoen "sardina saltzailea" besterik gabe bere lekura (ilarara) itzuliz.</p>	

### 5.4.30. 30. Jolasa: Korroka dantzaka

30. JOLASA: KORROKA DANTZAKA			
ADINA	KOPURUA	MATERIALA	ESPAZIOA
+ 3 URTE	+ 2 PERTSONA	-	IKASGELA/ PATIOA
AUDIOA			
<a href="http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_57.mp3">http://www.aisia.net/fitxategiak/jolasak/mp3/audio_57.mp3</a>			
JOLAS MOTA			
KORRO JOLASA			
ABESTIA		AZALPENA	
<p>Korroka dantzaka dantzaka korroka karriketan korrika</p> <p>Korroka dantzaka dantzaka korroka karriketan korrika</p> <p>Kokorika kokorika oilarra bezala</p> <p>Korroka dantzaka dantzaka korroka karriketan korrika</p> <p>Korroka dantzaka dantzaka korroka karriketan korrika</p> <p>Saltoka saltoka Igela moduan</p> <p>Kokorika kokorika Oilarra bezala.</p>		<p>1) Haur guztiak biribilean jarriko dira elkarri eskutik helduta eta abestiaren leloa abesten duten bitartean bueltaka hasiko dira: "<b>Korroka dantzaka, dantzaka korroka, karriketan korrika</b>".</p> <p>2) Leloa abestu ondoren, abestiaren hitzek adierazten dutena egin beharko dute, baina elkarri eskuak askatu gabe eta bueltak ematen jarraituz:</p> <p>"<b>Kokorika kokorika oilarra bezala</b>": kokorika edo kukubilka (makurtuta) jarri.</p> <p>"<b>Korroka dantzaka, dantzaka korroka, karriketan korrika</b>": zutik biribilean mugitu.</p> <p>"<b>Saltoka, saltoka igela moduan</b>": saltoak eman.</p> <p>"<b>Korroka dantzaka, dantzaka korroka, karriketan korrika</b>": zutik biribilean mugitu</p> <p>"<b>Txingoka, txingoka flamenkoa bezala</b>": hanka baten gainean ibili.</p> <p>"<b>Atzeraka, atzeraka karamarro moduan</b>": atzeraka ibili</p> <p>3) Bukatu ondoren, abestiaren leloa gero eta azkarrago errepikatzen da jolaskideak nekatu arte.</p> <p>* <b>MOLDAKETA</b>: flamenkoa eta karamarroa bezalako animaliak sar daitezke abestia labur geratzen dela sumatzekotan.</p>	

## 6. BALIZKO APLIKAZIOARI BURUZKO GOGOETAK

Aipatutako bildumak jolasa du bitarteko eta hezitzaileen bideratze lanak premiazko elementu dira patioak zein ikasgelak euskalduntze bidean. Gauzak horrela, "Euskal jolasekin" euskararen erabilera indartu ez ezik, irakasle-ikasle harremanak ere, sendotuko lirakeela uste dut. Finean, "jolasa haurren garapen kognitiboan, afektiboan, sozialean komunikatiboan eta psikomotorrean onurak dituen ikaskuntza eta komunikazioa bultzatzen duen hezkuntza erreminta da (Vygotsky, 1933; Piaget, 1945; Garvey, 1977; Bruner, 1986 eta Garaigordobil, 1990, in Del Toro, 2012: 1)". Jolasa, beraz, haurrentzat ezinbestekoa izateaz gain, umeei gustuko dute.

Horrenbestez, haurrentzako eredu diren hezitzaileak haiekin batera jolasean arituko balira, eragile hauen arteko harremanak estutuko lirakeela ematen du. Hori gutxi balitz, proposamen didaktiko honek gelakideak zehaztasun handiagoz ezagutzeko parada eskaini liezaieke hezitzaileei. Izan ere, haurren komunikatzeko eta adierazteko erarik naturalena dugu jolasa eta, beraz, umeen izaera ezagutzeko modurik eraginkorrena. Azkenik, patioak euskalduntzeko funtsezko erremintak eskaini lezizkieke haurrei: euskaraz (entzuteko eta) mintzatzeko jolasak.

Alabaina, proposamen didaktiko honek, parte-hartzaileen beharren eta nahien arabera gauzatu ezean, desabantailarik ere eduki lezake. Gauzak horrela, hezitzaileek haurren eragin negatiboa izan lezakete proposamena hauek aintzat hartu gabe ezarriko balute. Ezin ahortzi baitaiteke ekimenak, jolasteko bada ere, haurren aisialdi garaia - patioa - baliatzen duela. Beraz, zenbait umek ez liokete, akaso, aisialdi tarte horri uko egin nahi izango.

Patioko jarduna izaera askea duen hezkuntza ez-formaleko denbora tarte izanik, hainbat hezitzailek ere, zaintzak egiteko edota bestelako eginkizun profesionalak burutzeko baliatu ohi dute. Horrenbestez, patioan - baita, ikasgelan ere - garatutako jolas bilduma honek hezitzaileei "aisialdi garai" hura zenbait egunetan kentzea ekarriko luke, *a priori* hezitzaile zenbaiten aldetik erresistentzia eragin lezakeena.

Aipatutakoa tarteko, "Euskal Jolasak" proposamenak hezkuntza-eragile guztien prestutasuna, nahiak eta beharrak gogoan izan behar ditu; ekimena eraginkortasunez gara dadin. Azken batean, aurrekoan aztertu gisa, ikasleak eta irakasleak ez ezik, hezkuntza-sistemako eragile ugari - ikasleak, irakasleak, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (AZL) eta gurasoak - ere osatzen dute patioa. Hortaz, proposamen didaktikoa ikasgelan eta

patioan garatzen den neurrian, bertan aritzen diren norbanakoak kontuan hartzea premiazkoa da.

Hezkuntza-eragileez gain, euskara barrenetik mintzora garraiatzearen eginkizunean orotariko eragileak bereganatzean datza egungo erronka; ezin bailiteke euskara hezkuntzan aritzen diren norbanakoen ardurape hutsean utzi. Finean, hezkuntza-sistema euskara sustatzearen arduradunetako bat dugu; ez bakarra, ordea.



## 7. BALORAZIO PERTSONALA

Eskuartean dugun Gradu Amaierako Lana nire bizitza akademikoan egindako zereginik luzeena izan da; ez txosten idatziaren luzera aldetik bakarrik, baizik eta baliatutako ordu kopuruan ere bai. Luzeena ez ezik, sakonena ere izan dela esateko moduan nago; horren erakusle baitira txosten idatzian burututako hamaika zuzenketa eta egokitzapen.

Zuzenketak zuzenketa, egitasmoa atsegin handiz egituratu izan dut, gaiak eta arloak benetan asebetetzen baininduten. Horrek, hasieran nituen lanarekiko igurikapenak betetzea ekarri du, baita helburuak ere. Izan ere, lanarekin ikastea eta ikasitakoarekin gozatzea nuen alde aurretiko betekizun eta honakoa zinez bete da. GrAL-ekin euskarari dagozkion arlo historiko, soziolinguistiko, pedagogiko eta didaktikoetan bete-betean murgildu naiz eta horren ondoriozko ikaskuntza prozesua benetan emankorra suertatu zait.

Halaber, euskararen bilakaera eta egungo egoera soziala, kulturala eta politikoa aztertu ditut; nire jaioterriko egungo egoera soziolinguistikoari buruzko ikuspegi errealagoa eraikitzen lagundu didatenak, alegia. Era berean, hezkuntza-sistema eta euskararen arteko erlazioak analizatu ditut, Gasteizko Haur Hezkuntzako haurrek euskara ez erabiltzera daramatzaten aldagaiak ikertuz. Azterketa sakon horrek euskararen ezagutza eta erabileraren arteko desoreka arintzeko hainbat gako luzatu dizkit. Gauzak horrela, euskararen erabilera sustatzeko estrategiak martxan jartzea erdietsi dut, "Euskal Jolasak" jolas bilduma diseinatu. Hortaz, ezin konformeago egon, burututako lanarekin.

Alabaina, prozesuan zehar hainbat izan dira edukitako arazoak, zeregina zaildu dutenak. Horietatik esanguratsuenak GrAL-en egiturari buruzkoak izan direla esateko moduan nago. Azken batean, Gradu Amaierako Laneko ereduak anitzak dira: ikerlana, proposamen didaktikoa e.a. Gauzak horrela, GrAL-ean baliatuko den ereduaren egitura oso ondo ezagutu beharra dago, egitasmo eraginkorra gauzatze aldera. Horrenbestez, GrAL ereduaren egiturei buruzko ezagutza eskasa eta Gradu Amaierako Lanetan nuen esperientzia eza tarteko, unean-uneko ezjakintasunak areagotu zaizkit.

Aipatutako zailtasunak gainditze aldera, GrAL eredu zenbait arakatu, gainbegiratu eta aztertu ditut, eredu ezberdinak alderatzeko abagunea izanik. Era berean, Gradu Amaierako Laneko gida hainbat aldiz irakurri dut, ebaluazioak eskatutako betekizunengan arreta berezia jarritz. Horrenbestez, baliatutako estrategiei eta GrAL-eko zuzendariak eskainitako funtsezko laguntzari esker, zereginaren formatura egokitzeko beta izan dut; txosten idatziaren amaierako emaitzak asebeste nauelarik.

Bestalde, ezin egitasmoa bukatu, berau egituratzen lagungarri izan ditudan norbanakoei esker onak eman barik. Izan ere, haiek gabe, ez nengoke lerro hauek idazten, ziur aski. Hortaz, har bitzate nire eskerrik zintzoenak GrAL-eko zuzendari eta lagun izan dudana Edu Zelaietak; Armentia Ikastolako hezkuntza-eragileek, galdetegian parte hartu duten hezitzaileek bereziki; ingeles maila estandarra apaintzen lagundu didan Marie Trapetek eta prozesuan sostengu izan ditudan pertsona guztiek.

Azkenik, Araban egunez egun euskaraz bizi zirenei eta Arabako euskarari egin nahi nioke gorazarre; mendeak atzera eginez kale arabar zein gasteiztarretan aditzen zen ele zaharrari, hain zuzen. Horretarako, Gamiz idazle arabarraren hitzak baliatzeari egoki izan deritzot, Gradu Amaierako Lanari itxiera emate aldera: "Choriac arboletan dirade pocic, euren libertateaz cantaceagatic" <sup>1</sup> (Gamiz, in Zuazo, 2012: 174). Euskarak ere, pozik, aske eta ahoz aho jarrai beza, barrenetik mintzora.

---

<sup>1</sup> "Txoriak arboletan dira pozik, euren libertateaz kantatzeagatik" (Zuazo, 2012: 174).

## 8. ERREFERENTZIAK

Agirre, A. (2005). Itziar Laka: "Elebitasuna biologikoki interesgarria da, gizakion ezaugarria baita". *Elhuyar: Zientzia Eta Teknika*, (213), 12-15. 2016ko maiatzaren 12an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

[http://aldizkaria.elhuyar.eus/site\\_media/pdf/A213\\_O12-15\\_1.pdf](http://aldizkaria.elhuyar.eus/site_media/pdf/A213_O12-15_1.pdf).

Aldecoa, M. A. (2014). *Euskararen normalizazioa hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri programa, euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak* Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. 2016ko apirilaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://hdl.handle.net/10810/11322>.

Armentia Ikastola. (2015). *Armentia Ikastola*. Gasteiz: Armentia Ikastola. 2016ko apirilaren 25ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<http://www.armentiaikastola.eus/eu/node/290>.

Ba, M. (2012). *Guía de Senegal. Convierte tus sueños en realidad*. 2016ko maiatzaren 12an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<http://guiadesenegal.com/es/kasumay/diccionario-espa%C3%B1ol-wolof-diola>.

Ballesteros, U. (2016). *Euskara Biltegia*. Auto-edizioa. Gasteiz. 2016ko otsailaren 29an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://euskarabiltegia.blogspot.com.es/>.

Ballesteros, U. (2016). *Practicum III*. Haur Hezkuntzako gradua. Armentia Ikastola. Argitaratu gabeko auto-edizioa.

Besalú, X., eta Vila, I. (2007). *La buena educación: Libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI*. Madril: Catarata.

Bonaparte, L. L. (2014). Carte des sept Provinces Basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscaro et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés [Material kartografikoa]/par Louis-Lucien Bonaparte. 2016ko martxoaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://hdl.handle.net/10357/6535>.

Davila, P. (1993). Euskal alfabetatzearen ereduaren eraketarako osagaiak. *Uztaro*, 9, 153-160. 2016ko martxoaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.ueu.eus/download/artikulua/uztaro9\\_7.pdf](http://www.ueu.eus/download/artikulua/uztaro9_7.pdf).

Del Toro, V. (2012). El juego como herramienta educativa del educador social en actividades de animación sociocultural y de ocio y tiempo libre con niños con discapacidad. *RES : Revista De Educación Social*, (16). 2016ko apirilaren 25ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5360177&orden=0&info=link>.

EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila (2009). 12/2009 Dekretua. Haur Hezkuntzako curriculum. EHAA, 21 zk., 2009ko urtarrilak 30, ostirala. Euskaraz eta gazteleraz. 2016ko otsailaren 29an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf>.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika Saila. (2016). *EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana*. Gasteiz. 2016ko maiatzaren 9an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_dokument/adjuntos/Hobetzeko\\_Plan\\_a\\_2016\\_martxo\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_dokument/adjuntos/Hobetzeko_Plan_a_2016_martxo_e.pdf).

Eusko Jaurlaritzako Ulibarri programa. Hezkuntza berrizatzeko zuzendaritza eta euskara zerbitzua. (1996). *Ulibarri programa. Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza*. Eibar. 2016ko apirilaren 24an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://www.ulibarri.euskadi.eus/ulibarri/normalkuntza>.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2013). *Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, hizkuntza, sexua eta aldia*. Gasteiz. 2016ko martxoaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX\\_3673\\_lhc01.px/table/tableViewLayout1/?rxid=de954151-a8d1-4e00-8cb4-b9ae25b1dd6b#axzz43cXxczW5](http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3673_lhc01.px/table/tableViewLayout1/?rxid=de954151-a8d1-4e00-8cb4-b9ae25b1dd6b#axzz43cXxczW5).

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2013). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, euskara-maila orokorraren lurralde historikoaren eta urtearen arabera. 1996-2011*. Gasteiz. 2016ko martxoaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti\\_euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-euskara-maila-orokorraren-lurralde-historikoaren-eta-urtearen-arabera/tbl0000487\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti_euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-euskara-maila-orokorraren-lurralde-historikoaren-eta-urtearen-arabera/tbl0000487_e.html).

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2013). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera*. 2011. Gasteiz. 2016ko martxoaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti\\_euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-euskara-maila-orokorraren-lurralde-historikoaren-eta-urtearen-arabera/tbl0000487\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti_euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-euskara-maila-orokorraren-lurralde-historikoaren-eta-urtearen-arabera/tbl0000487_e.html).

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2015). *Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Euskal AEn, lurralde historikoaren eta adin taldearen arabera (%)*. 1986-2011. Gasteiz. 2016ko apirilaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/ti\\_lehen\\_hizkuntza---5-urte-euskal-aen--lurralde-historikoaren-eta-adin-taldearen-arabera/tbl0009567\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/ti_lehen_hizkuntza---5-urte-euskal-aen--lurralde-historikoaren-eta-adin-taldearen-arabera/tbl0009567_e.html).

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2015). *Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, hizkuntza, sexua eta aldia*. Gasteiz. 2016ko maiatzaren 10ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX\\_3673\\_lhc01.px/table/tableViewLayout1/?rxid=de954151-a8d1-4e00-8cb4-b9ae25b1dd6b#axzz48EvhBUbn](http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3673_lhc01.px/table/tableViewLayout1/?rxid=de954151-a8d1-4e00-8cb4-b9ae25b1dd6b#axzz48EvhBUbn).

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea -. (2015). *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki*. *Datu-aurrerapena, 2015-16*. Gasteiz. 2016ko apirilaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti\\_unibertsitatetik-kanpoko-araubide-orokorreko-irakaskuntzetan-matrikulatutako-ikasleak-euskal-aen--lurralde-eta-irakaskuntza-mailaren-arabera--zentroaren-titulartasunari-eta-hizkuntza-ereduari-jarraiki-datu-aurrerapena-2015-16/tbl0002427\\_e.html#axzz46S6exVVD](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti_unibertsitatetik-kanpoko-araubide-orokorreko-irakaskuntzetan-matrikulatutako-ikasleak-euskal-aen--lurralde-eta-irakaskuntza-mailaren-arabera--zentroaren-titulartasunari-eta-hizkuntza-ereduari-jarraiki-datu-aurrerapena-2015-16/tbl0002427_e.html#axzz46S6exVVD).

Galtzagorri Elkartea. (2016). *Bularretik mintzora*. Donostia. 2016ko apirilaren 15ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://www.bularretikmintzora.org/azalpena>

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua. (2012). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Gasteiz 2013-2017*. 2016ko martxoaren 19an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/07/37/60737.pdf>.

Google. (2007). *Google Translate*. Mountain View. 2016ko maiatzaren 12an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <https://translate.google.com/#es/ar/>.

Hernández, J., Peña, J. V. eta Rodríguez, M. d. C. (2004). Pensamiento docente sobre el juego en educación infantil: Análisis desde una perspectiva de género. *Revista Española De Pedagogía*, 62(229), 455-466. 2016ko apirilaren 27an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/1051440.pdf>.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Gasteizko Irakasle-Eskolako Praktika eta GrALeko Batzordea. (2015). *Gradu Amaierako Lana (GrAL)*. Auto-edizioa. 2016ko martxoaren 19an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.ehu.es/documents/1503460/1889992/TFG\\_GUIA\\_15-16\\_hezkuntza\\_kirol\\_fak.pdf](http://www.ehu.es/documents/1503460/1889992/TFG_GUIA_15-16_hezkuntza_kirol_fak.pdf).

Idiazabal, I. (1993). Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: Zenbait gogoeta. *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 10, 11-21. 2016ko martxoaren 22an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://soziolinguistika.eus/files/02%20Idiazabal.pdf>.

Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI). (2012). *PISA-L. Probako hizkuntzak nazioarteko ebaluazioetako emaitzetan duen eraginari buruzko ikerlana. Hezkuntza elebiduneko programetako ikasleen emaitzak. D eredua*. Gasteiz. 2016ko maiatzaren 9an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_documento/adjuntos/Hobetzeko\\_Plan\\_a\\_2016\\_martxo\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_documento/adjuntos/Hobetzeko_Plan_a_2016_martxo_e.pdf).

Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI). (2015). *Ebaluazio diagnostikoa. Txosten exekutiboa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila*. Gasteiz. 2016ko maiatzaren 7an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=efa9069b-264c-44e5-a1dd-d89cd2f4506b&groupId=635622](http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=efa9069b-264c-44e5-a1dd-d89cd2f4506b&groupId=635622).

Lujanbio, O. (2010). *Soziolinguistika Eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2016ko apirilaren 19an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA\\_ESKULIBURUA-azkena.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf).

Martínez de Madina, E. (2011). Toponimia histórica de vitoria: Un proyecto para dos lenguas en concreto. *Pirinioetako hizkuntzak: Oraina eta lehena: Euskaltzaindiaren XVI. biltzarra* (1. ed., pp. 1281-1292) Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca, EUSKALTZAINDIA. 2016ko martxoaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3855962&orden=349578&info=link>.

Martínez de Madina, E., eta González de Viñaspre, R. (2012). Observaciones para una delimitación de la lengua vasca en álava. *Fontes Linguae Vasconum: Studia Et Documenta*, 44(114), 135-144. 2016ko martxoaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4434564&orden=418177&info=link>; <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/4434564.pdf>.

Oyharçabal, B. (2013). Euskararen mugak hego aldean 1807.ean: Eugène Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak. *Anuario Del Seminario De Filología Vasca "Julio De Urquijo"*, 241-253. 2016ko martxoaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

[http://scholar.googleusercontent.com/scholar?q=cache:p2xgEn-6ciAJ:scholar.google.com/&hl=es&as\\_sdt=0,5](http://scholar.googleusercontent.com/scholar?q=cache:p2xgEn-6ciAJ:scholar.google.com/&hl=es&as_sdt=0,5).

Pastor, E. (2011). "La Llanada oriental hace mil años. ¿Qué hay del crecimiento agrario altomedieval? Hábitat y paisajes agrarios (entre la imaginación y la lógica)." *Agurain 1256-2006*: 55-75. Agurain: Aguraingo Udala. 2016ko martxoaren 20an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://hdl.handle.net/10810/12657>.

Falagan, M. (2015). Etorकिन seme-alaben jatorrizko hizkuntzen trataera eskolan. 2016ko maiatzaren 23an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:

<https://addiehu.ehu.es/handle/10810/14030>

Urtxintxa. (2010). *Aisia.net*. Donostia: Urtxintxa. 2016ko apirilaren 26an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://www.aisia.net/jolasak>.

Zuazo, K. (2012). *Arabako euskara*. Donostia: Elkar argitaletxea.

# ERANSKINAK

## 1. eranskina: euskararen muga Araban 1860-70 hamarkadan (Bonaparte, 1863, in Bonaparte, 2014)





**2. eranskina: Euskal Herriko (eta inguruetak) eta Arabako euskaldunak 1973an**  
(Irizar, 1973, in Zuazo 2012: 23).

EUSKAL HERRIKO (ETA INGURUETAKO) EUSKALDUNAK 1973an	
HERRIALDEA	EUSKALDUNAK
Gipuzkoa	276.843
Bizkaia	140.229
Lapurdi	39.530
Nafarroa	35.228
Nafarroa Beherea	27.016
Zuberoa	11.302
Araba	1.863
Biarno	605
<b>GUZTIRA</b>	<b>532.616</b>

ARABAKO EUSKALDUNAK 1973an	
ESKUALDEA	EUSKALDUNAK
Aramaio	1.432
Laudio	200
Legutio	198
Zigoitia	18
Baranbio	12
Barrundia	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.863</b>

**3. eranskina: Arabako hizkuntza ezagutza 1981-2011** (Eustat, 1981-2006, in Zuazo, 2012: 24) eta (Eustat, 2013).

<b>ARABAKO HIZTUN EUSKALDUNAK (1981-2011)</b>					
<b>ESKUALDEAK</b>	<b>1981</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>
Arabako Ibarrak	39	89	325	966	996
Arabako Lautada	6.555	16.080	33.781	58.733	56.992
Arabako Mendialdea	20	172	360	556	665
Errioxa arabarra	80	662	1.279	2.436	2.442
Gorbeia inguruak	1.551	1.734	2.502	3.139	3.611
Kantauri arabarra	1.441	4.258	7.065	8.763	9.677
<b>EUSKALDUNAK GUZTIRA</b>	<b>9.686</b>	<b>22.995</b>	<b>45.312</b>	<b>74.593</b>	<b>74.383</b>

**4. eranskina: Arabako 2 urteko eta gehiagoko biztanleriaren euskara ezagutza (Eustat, 2013).**


<b>ARABAKO 2 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN EUSKARA EZAGUTZA (1996-2011)</b>				
<b>HIZKUNTZA EZAGUTZA</b>	<b>01/05/1996</b>	<b>01/11/2001</b>	<b>01/11/2006</b>	<b>01/11/2011</b>
Euskaldunak	40.479	45.312	74.593	74.383
%	% 14.61	% 16.21	% 25.07	% 23.87
Ia-euskaldunak	54.366	68.907	67.092	81.299
%	% 19.63	% 24.66	% 22.55	% 26.09
Erdaldunak	182.166	165.241	155.884	155.942
%	% 65.76	% 59.13	% 52.38	% 50.04
<b>GUZTIRA</b>	<b>277.011</b>	<b>279.460</b>	<b>297.569</b>	<b>311.624</b>
%	% 100	% 100	% 100	% 100

**5. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiagoko biztanleriaren euskara ezagutza 1981-2011 (Eustat, 2013).**

<b>GASTEIZKO 2 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN EUSKARA EZAGUTZA (1981-2011)</b>					
<b>HIZKUNTZA EZAGUTZA</b>	<b>1981</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>
Euskaldunak	6.207	15.188	31.482	55.075	52.298
%	% 3.38	% 7.51	% 14.88	% 24.64	% 22.46
Ia-euskaldunak	20.421	42.104	54.521	50.816	60.851
%	% 11.14	% 20.81	% 25.78	% 22.73	% 26.14
Erdaldunak	156.741	145.043	125.512	117.662	119.678
%	% 85.48	% 71.68	% 59.34	% 52.63	% 51.40
<b>GUZTIRA</b>	<b>183.369</b>	<b>202.335</b>	<b>211.515</b>	<b>223.553</b>	<b>232.827</b>
%	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

6. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiago biztanleriaren hizkuntza ezagutza 1981-2011 (Eustat, 2013).

Euskal AEko  $\geq 2$  urteko biztanleria per lurralde eremua, euskara-maila eta aldia




**7. eranskina: Gasteizko 2 urteko eta gehiagoko hizkuntza erabilera 1991-2011 (Eustat, 2013)**

<b>GASTEIZKO 2 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA ERABILERA (1991-2011)</b>					
<b>HIZKUNTZA ERABILERA</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>
Euskaraz	2.029	2.601	3.453	4.409	6.589
%	% 0.98	% 1.21	% 1.59	% 1.92	% 2.75
Gaztelaniaz	197.764	203.771	203.905	213.721	217.107
%	% 95.95	% 95.12	% 94.03	% 93.05	% 90.48
Euskaraz eta Gaztelaniaz	5.308	6.653	7.112	8.261	8.546
%	% 2.58	% 3.11	% 3.28	% 3.60	% 3.56
Beste hizkuntzaren bat	1.015	1.209	2.382	3.277	7.707
%	% 0.49	% 0.56	% 1.10	% 1.43	% 3.21
<b>GUZTIRA</b>	<b>206.116</b>	<b>214.234</b>	<b>216.852</b>	<b>229.668</b>	<b>239.949</b>
%	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100


8. eranskina: DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera. (ISEI, 2015).

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 09	166	240	263	194	254	268
ED 10	172	240	268	209	259	278
ED 11	174	237	265	203	252	276
ED 13	178	226	264	205	248	275
ED 15	178	219	254	207	242	265



9. eranskina: ED15-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko idazmeneko emaitzak geruzen arabera. (ISEI, 2015).


EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 15	153	229	262	209	245	262






10.eranskina: DBHko 2.maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera. (ISEI, 2015).

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 09	214	243	247	256	258	251
ED 10	223	243	249	258	261	255
ED 11	220	246	250	264	262	257
ED 13	227	234	250	260	259	255
ED 15	221	237	249	258	263	256




11. eranskina: ED15-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera. (ISEI, 2015).

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 15	237	247	248	245	254	255




12. eranskina: DBHko 2. maila. Eraitzen bilakaera geruzen arabera Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian. (ISEI, 2015).

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 11	198	226	244	260	256	264
ED 15	203	221	243	266	259	263



13. eranskina: ED15-DBHko 2. maila. Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko Idazmeneko emaitzak geruzen arabera. (ISEI, 2015).

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEN (ED) EDIZIOAK URTEKA	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK					
	A PUBLIKOA	B PUBLIKOA	D PUBLIKOA	ITUNPEKO A	ITUNPEKO B	ITUNPEKO D
ED 15	212	217	249	268	257	250



**14. eranskina: Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, EAEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraikiz. Datu-aurrerapena, 2015-16 (Eustat, 2015).**

<b>HAUR HEZKUNTZAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016)</b>			
GUZTIRA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
15.102	490	5.223	9.389
PORTZENTAJEA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
% 100	% 3.24	% 34.59	% 62.17

<b>HAUR HEZKUNTZAN IKASTETXE PUBLIKOETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016)</b>			
GUZTIRA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
9.288	208	1.187	7.893
PORTZENTAJEA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
% 100	% 2.24	% 12.88	% 84.98

<b>HAUR HEZKUNTZAN IKASTETXE PRIBATUETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016) *</b>			
GUZTIRA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
5.814	282	4.036	1.496
PORTZENTAJEA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
% 100	% 4.85	% 69.42	% 25.73

\* Ikastetxe pribatu gisa lurralde historikoko itunpeko ikastetxe guztiak aintzat hartzen dira.

15. eranskina: Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, EAEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraikiz. Datu-aurrerapena, 2015-16 (Eustat, 2015).

<b>HAUR HEZKUNTZAN ETA HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016)</b>		
GUZTIRA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
15.102	490	14.612
PORTZENTAJEA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
% 100	% 3.24	% 96.76

<b>HAUR HEZKUNTZAN, HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNETAN ETA IKASTETXE PUBLIKOETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016)</b>		
GUZTIRA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
9.288	208	9.080
PORTZENTAJEA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
% 100	% 2.24	% 97.76

<b>HAUR HEZKUNTZAN, HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNETAN ETA IKASTETXE PRIBATUETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ARABAN (2015-2016)</b>		
GUZTIRA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
5.814	282	5.532
PORTZENTAJEA	HIZKUNTZA EREDU ELEBAKARRAK	HIZKUNTZA EREDU ELEBIDUNAK
% 100	% 4.85	% 95.15

**16. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Araban, adin taldearen arabera (%).  
1986-2011) (Eustat, 2015).**

<b>5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN LEHEN HIZKUNTZA ARABAN (1986)</b>				
ADIN TALDEA	HIZTUN KOPURUA GUZTIRA	EUSKARA (%)	EUSKARA ETA GAZTELANIA (%)	GAZTELANIA ETA BESTELAKOAK (%)
+ 5 URTE	250.916	2,81	1,45	95,75
5-9 URTE	21.892	1,51	3,21	95,28

<b>5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN LEHEN HIZKUNTZA ARABAN (2011)</b>				
ADIN TALDEA	HIZTUN KOPURUA GUZTIRA	EUSKARA (%)	EUSKARA ETA GAZTELANIA (%)	GAZTELANIA ETA BESTELAKOAK (%)
+ 5 URTE	301.896	3,94	3,11	92,95
5-9 URTE	14.624	7,72	11,86	80,42

<b>5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN LEHEN HIZKUNTZA ARABAN (1986 eta 2011)</b>			
ADIN TALDEA	HIZTUN KOPURUA GUZTIRA	LEHEN HIZKUNTZA ELEBIDUNA - EUSKARA ETA GAZTELANIA - (%)	GAZTELANIA ETA BESTELAKOAK (%)
+ 5 URTE (1986)	250.916	4.25	95,75
+ 5 URTE (2011)	301.896	7.05	92,95
5-9 URTE (1986)	21.892	4.72	95,28
5-9 URTE (2011)	14.624	19.58	80,42

**17. eranskina: Lehen hizkuntza (> = 5 urte) Gasteizen (%). 1991-2011)** (Eustat, 2015).

<b>5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN LEHEN HIZKUNTZA GASTEIZEN (1991)</b>			
EDOZEIN HIZKUNTZA		GAZTELANIA ETA EUSKARA EZ DEN BESTE HIZKUNTZAREN BAT	
HIZTUN KOPURUA	PORTZENTAJEA (%)	HIZTUN KOPURUA	PORTZENTAJEA (%)
206.116	100	1.015	0.49

<b>5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN LEHEN HIZKUNTZA GASTEIZEN (2011)</b>			
EDOZEIN HIZKUNTZA		GAZTELANIA ETA EUSKARA EZ DEN BESTE HIZKUNTZAREN BAT	
HIZTUN KOPURUA	PORTZENTAJEA (%)	HIZTUN KOPURUA	PORTZENTAJEA (%)
239.949	100	7.707	3.21



18. eranskina: Zenbakiak ikasteko hiztegi eleanitza (Google, 2007 eta Ba, 2012).

<u>ZENBAKIA</u>	<u>EUSKARA</u>	<u>GAZTELANIA</u>	<u>ARABIERA</u>	<u>WOLOF</u>
1	BAT	UNO	أونو	BENN
2	BI	DOS	دوس	ÑAAR
3	HIRU	TRES	تريس	ÑETT
4	LAU	CUATRO	كواترو	ÑENT
5	BOST	CINCO	سديكو	JUROOM
6	SEI	SEIS	سدنة	JUROOM BENN
7	ZAZPI	SIETE	سدبعة	JUROOM ÑAAR
8	ZORTZI	OCHO	ثمانية	JUROOM ÑETT
9	BEDERATZI	NUEVE	تسعة	JUROOM ÑENT
10	HAMAR	DIEZ	عشرة	FUKK

**19. eranskina: "Euskal Jolasak" dinamikaren egutegia.** Armentia Ikastolako eskola ordutegian oinarritua (Armentia Ikastola, 2015)

IRAILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16	17	18
21 1. ETA 2. JOLASAK (I) 11:45-12:15	22	23 2. JOLASA (P) 10:00-10:30	24	25
28 3. JOLASA (I) 11:45-12:15	29	30 3. ETA 4. JOLASAK (P) 10:00-10:30		

URRIA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
			1	2
5 5. JOLASA (I) 11:45-12:15	6	7 5. ETA 6. JOLASAK (P) 10:00-10:30	8	9
12 	13	14	15	16
19 7. JOLASA (I) 11:45-12:15	20	21 7. ETA 8. JOLASAK (P) 10:00-10:30	22	23
26 9. ETA 10. JOLASAK (I) 11:45-12:15	27	28 9. ETA 10. JOLASAK (P) 10:00-10:30	29	30

AZAROA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
2 11. ETA 12. JOLASAK (I) 11:45-12:15	3	4 11. ETA 12. JOLASAK (P) 10:00-10:30	5	6
9 13. JOLASA (I) 11:45-12:15	10	11 13. ETA 14. JOLASAK (P) 10:00-10:30	12	13
16 15. JOLASA (I) 11:45-12:15	17	18 15. ETA 16. JOLASAK (P) 10:00-10:30	19	20
23 17. JOLASA (I) 11:45-12:15	24	25 17. ETA 18. JOLASAK (P) 10:00-10:30	26	27
30 19. JOLASA (I) 11:45-12:15				

ABENDUA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	1	2 19. ETA 20. JOLASAK (P) 10:00-10:30	3	4
7 	8 	9	10	11
14 21. JOLASA (I) 11:45-12:15	15	16 21. ETA 22. JOLASAK (P) 10:00-10:30	17	18
21	22 	23 	24 	25 
28 	29 	30 	31 	

URTARRILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
				1 
4 	5 	6 	7	8
11 23. ETA 24. JOLASAK (I) 11:45-12:15	12	13 24. JOLASA (P) 10:00-10:30	14	15
18 25. JOLASA (I) 11:45-12:15	19	20 25. ETA 26. JOLASAK (P) 10:00-10:30	21	22
25 27. JOLASA (I) 11:45-12:15	26	27 27. ETA 28. JOLASAK (P) 10:00-10:30	28	29

OTSAILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1 29. ETA 30. JOLASAK (I) 11:45-12:15	2	3 29. ETA 30. JOLASAK (P) 10:00-10:30	4	5
8 	9 	10	11	12
15	16	17	18	19
22	23	24	25	26
29				



Goizez 09:30-13:30



Goizez eta arratsaldez 09:30-13:00 // 15:00-17:00



Oporrak



Zubia



Jai eguna

•  I: IKASGELA

•  P: PATIOA

**20. eranskina: Euskal Jolasak EAEko Curriculumari dagokionez** (EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, 2009).

<b>1. GAITASUN OROKORRAK</b>	
1	Ikasten eta pentsatzen ikastea.
2	Komunikatzen ikastea.
3	Elkarrekin bizitzen ikastea.
4	Pertsona gisa garatzen ikastea.

<b>2. HELBURU OROKORRAK</b>	
1	Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas ditzan.
2	Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena gara ditzan.
3	Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebazten treba dadin.
4	Zenbait hizkuntzatan adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.



<b>3. GAITASUNAK</b>	
<b>1. NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA</b>	(1) Gorputza kontrolatzen aurrera egitea, zentzumen-pertzepzioa garatzeko eta tonua, oreka eta mugimenduaren koordinazioa inguruko ezaugarrietara egokitzeko.
	(2) Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko; eta mendetasun edo nagusitasun-jarrerarik ez izatea.
<b>2. INGURUNEAREN EZAGUERA</b>	(3) Portaera sozialeko oinarrizko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean.
	(4) Inguruko hizkuntzaren eta ohituren berri izatea eta haietan parte hartzea, haietaz gozatzeko eta aintzat hartzeko, nortasun-ezaugarri baitira.
<b>3. HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA</b>	(5) Hizkuntza, ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz, komunikatzeko, irudikatzeko, ikasteko eta gozatzeko tresna gisa erabiltzea.
	(6) Komunikazioaren aldeko jarrera erakustea euskaraz komunikatzean bertako kultura ezagutzeko.
	(7) Komunikatzeko asmoa helburu, euskara ahoz erabiltzen hastea komunikatzeko asmoarekin, ikasgelako eta patioetako egoeretan parte hartzeko.

<b>4. EDUKIAK</b>		
<b>1. NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA</b>	<b>2. INGURUNEAREN EZAGUERA</b>	<b>3. HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA</b>
<p>1- Inguruko nortasuna eta ezaugarriak onartzea, aldeak errespetatzea eta jarrera diskriminatzailezik ez izatea.</p> <p>2- Jolasaren bitartez ingurunea aztertzea: mugimen- eta zentzumen-jolasak, jolas sinbolikoak eta arauak dituztenak. Jolasa gozatzeko eta ingurukoekin harremana izateko bidetzat hartzea.</p> <p>2- Jolasen arauak ulertzea eta onartzea. Arauak beharrezkoak direla ohartzea eta arautzen parte hartzea.</p>	<p>3- Portaerazko jarraibide egokiak eta bizikidetzarako oinarrizko arauak arian-arian eta modu aktiboan barneratzea. Gatazkak elkarriketaren bitartez konpontzeko bidean, parte-hartze gero eta handiagoa izatea.</p> <p>3- Norberaren kultura-nortasuneko zenbait nortasun-ezaugarri (hizkuntza, ohiturak) ezagutu eta aintzat hartzea.</p>	<p>1- Eguneroko egoeretako helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea.</p> <p>1- Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.</p> <p>1- Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.</p>

5. EBALUAZIOA			
		Ebaluazio Tresnak	Ebaluazio Irizpideak
1. NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA	1	-Behaketa koaderno  -Haurren erantzunak  -Haurren hitzezko ekarpenak  -Haurren jarrerak (ikaskideekiko onarpena, errespetua e.a.)	- Ea bere gorputza gero eta hobeto kontrolatzen duen, bai mugimenduan (lekualdaketak, jauziak...) bai atsedenean ere (oreka, jarreraren kontrola...).
	2		- Ea ekintza berriak hasteko ekimenik baduen, eta lorturiko aurrerapenekin gozatzen duen.  - Ea errespetuzko, laguntzazko eta elkarlanerako jarrerarik baduen.  - Ea sentibera den inguruko gogo-aldarte, interes eta lehentasunekiko.  - Ea gero eta hobeto saihesten dituen mendekotasun-edota nagusitasun-jarrerak.
2. INGURUNEAREN EZAGUERA	3		- Ea onartzen duen bizikidetzarako zenbait arau ezartzea beharrezkoa dela.
	4		- Ea parte hartzen duen era bateko edo besteko hizkuntza, kultura edota ohitura jardueretan, eta ea identifikatzen dituen jarduera horien bereizgarri diren zenbait ezaugarri.
3. HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA	5		- Ea modu bateko edo besteko komunikazio-estrategiarik erabiltzen duen bere ideiak eta sentimenduak adierazteko.  - Parekoekiko eta helduekiko harremanetan, komunikazio-asmoak kontuan izanik erabiltzea ahozko hizkera, eta arretazko eta errespetuzko jarrera erakutsiz entzutea.
	6		- Komunikazio-egoeretan parte hartzea elkarrizketaren bitartez, txanda-sistemaren bitartez eta harreman sozialeko jolasen bitartez.  - Ea arretaz eta errespetuz entzuten duen beste solaskide batzuek euskaraz adierazten dutena.
	7		- Ea baliatzen den ahozko hizkuntzaz nolanhiko egoeretan eta nolanhiko solaskidearekin komunikatzeko, eta ea gizarteko zenbait konbentzio erabiltzen dituen (entzutea, hitz egiteko txandari itxarotea...).

## 21. eranskina: Gradu Amaierako lanaren galdetegia



### GRADU AMAIERAKO LANA

#### GALDETEGIA

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan burutuko dudan Gradu Amaierako Lanaren inguruko galdetegia duzue eskuartean, Gasteizko euskararen egoera aztertu eta euskararen erabilera sustatzea xede duena. Egitasmoa burutzen laguntzeagatik aldeztu aurretiko mila eskerrak luzatu nahi nizkizueke.

#### GALDERAK

- 1) Zer nolako erlazioa duzu euskararekiko (bai erabilera arloan, bai sentimentalki)?
- 2) Zein da, zure ustez, euskararen egoera gaur egun Gasteizen (arloan sozialean, instituzionalean, profesionalean, kalean e.a.)?
- 3) Zer urrats eman litezke gizabanako gisa euskara bultzatzeko? Eta instituzioen aldetik?
- 4) Zer nolako garrantzia du euskarak hezkuntza eragilean (familiak, ikastetxeetako langileak, ikasleak e.a.) artean?
- 5) Zergatik Haur Hezkuntzako ume askok irakasleekin euskaraz mintzatu eta kideekin gaztelaniaz egiten dute Gasteizen?
- 6) Nola euskaldundu litezke patioak?

**22. eranskina: Armentia ikastetxeko familien hizkuntza ezagutza eta erabilera (3 urteko ikasgela)**

<b>EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN</b>		
<b>ETXEKO HIZKUNTZA (1H)</b>	<b>HAUR KOPURUA</b>	<b>PORTZENTAJEA (%)</b>
EUSKARA	4	% 16.7
GAZTELANIA	20	% 83.3
TOTALA	24	% 100

<b>EUSKARAREN EZAGUERA ETXEAN</b>		
<b>EUSKARAREN EZAGUERA*</b>	<b>HAUR KOPURUA</b>	<b>PORTZENTAJEA</b>
GURASO ELEBIDUNAK	11	% 45.8
GURASO ELEBAKARRAK	13	% 54.2
TOTALA	24	% 100

\* EUSKARAREN EZAGUERA: Pertsona hura gai izango da euskarazko ahozko zein idatzizko ekoizpen sinpleak egituratzeko edozein testuingurutan.

GURASO ELEBIDUNAK (ELEBIDUN HARTZAILEAK BARNE): Euskara eta Gaztelania

GURASO ELEBAKARRAK: Gaztelania